

ARTEA

'Zornotxori' sortu dute, ekitaldi instituzionaletan zornotzarren lana aitortzeko ikurra / 17

GIZARTEA

Zazpi langile bajaran Montorretas enpresan, artseniko maila handiagaitik / 4

LEKUAN LEKUKO

anboto

Munduko txirrindularirik onenak Durangaldera datoz

Goi mailako hitzordu bi izango ditugu eskualdean: Itzulia Womeneko etapa bat zapatuan, eta Durangoko Klasikoa martitzenean / 21



Itzulia Women lasterketako irudia.

ITZULIA WOMEN

FUTBOLA

"Bigarren RFEFa da klubari ondoen egokitzen zaion maila" / 20


JON LARREA
SD Amorebietako presidentea



ELKARRIZKETA

"Audio batzuei eskerrak dakigu Oteiza erakusketa egitekoa zela Durangon"

Arte eta Historia museoak Oteizak Durangon egitekoa zuen erakusketa berreraiki du. David Pavo da komisarioa / 2-3



IURRETA
Lanbide Heziketa

www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel: 944 66 88 00

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa (A eredu edota D eredu egiteko aukera)
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arreta

Instalazio elektriko eta automatikoen eta telekomunikazioen GRADU BIKOITZA (3 ikasturte)

GOI MAILA "guztiak D eredu"

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze-lan Elektronikoa
- Produktzioaren Programazioa
- Zuzendaritzari laguntza (bigarren maila)

HASIERAKO LANBIDE HEZIKETA

- Informatika eta komunikazioak

AURREMATRIKULA (ezinbestekoa matrikula plaza lortu ahal izateko)
Maiatzaren 4tik 22ra arte

BERRIA

BERRIA

"Erakusketa hau Oteizak Durangori egin gura izan zion opari bat da"

DAVID PAVO CUADRADO ERAKUSKETAREN KOMISARIOA

Orain 50 urte Jorge Oteiza artistak Ezkurdi Aretoan egin gura zuen erakusketari buruzko informazioa aurkituta, proiektua errealitate bihurtu dute



David Pavo, Arte eta Historia Museoan.

Ekaitz Herrera DURANGO

Bost hamarkada igaro eta gero, Jorge Oteizak Durangon egin gura zuen erakusketa berreskuratu dute Arte eta Historia Museoan. David Pavo Cuadrado (Ermua, 1987) proiektuaren komisarioa izan da egitasmoaren bultzatzailea. Abuztuaren 30era bitartean, artista oriotarraren lanak ikusgai izango dira Durangon.

Zergaitik Oteiza?

Nire prestakuntza eskultura arlokoa da eta doktoretza-tesia Oteizari buruz egin nuen. Gehien ikertu eta landu dudana artista da eta, nire iritzian, egin beharra zegoen. Oteizaren obra eta pentsamendua oso argigarriak dira; izan ere, ez da bakarrik obra ikaragarri bat maila unibertsalean, geroago eta gehiago baloratzen dena, harago doan zeozer baino; bere pentsamenduak, testuek eta idazkerak arte sorkuntzaren

konplexutasunetan sartzeko tresna legez balio digute.

Durangon kokatuko gara, 1970ean. Zelan amaitu du Durangorako erakusketa honek Oteizaren eskuetan?

Alde batetik, Juan Daniel Fullaondo arkitektoa eta Fernando Olabarria Durangoko Ezkurdi plazaren proiektua garatzen zebiltzan. Hartu-eman handia zuten euren artean. Fullaondok hainbat liburu eta aldizkari eskaini zion, 1968ko Nueva Forma aldizkaria, adibidez, eta esango nuke Oteizak bazekiela Durangoko Ezkurdi plazan erakusketa areto bat egongo zela. Bestalde, testuingurua Oteizak bere esperimentazioa, bere laborategi esperimentalak amaitu zuen garaikoa da; eskultura "adierazpen" legez utzi zuela esaten zuten, nahiz eta hori tranpa izan, eskultura egiten jarraitzen zuelako. Ondoren, gehiago dedikatu zen laborategian eraikitako sentsibilitate hori gizarteari

aplikatzera, arkitektura proiektuen eta dibulgazioaren bitartez. Gaur taldea urte bi lehenago sortu zen, 1968an. Hartara, Euskal Herrian Gaur taldeagaz sortu zena zabaltzeko marko horretan, munduan nabarmendu zen artista multzo haregaz —27ko belaunaldiaren edo errealismo magikoaren parekoa izan zitekeena—, bere obra zabaltu zuen. Horregaitik dio uneren batean: "Erakusketa bat zaharrituta bezalako zerbait da, baina tira, hau idazten dut". Horixe da erakusketa proposamen hau sortzeko ernamuina.

"Oteizak Hego Amerikan emandako hitzaldien bilan nabilela Durangokoa agertu zen"

Zergaitik ez zen gauzatu? Badakigu?

Ez dakigu. Informazio hutsune asko dago, isiluneak... ez dakit ezkutatu egiten diren ala besterik barik, ez dela ezer esaten. Leopoldo Zugaza zen Ezkurdi erakusketa aretoko zuzendaria, eta gero Ezkurdirako osatutako bilduma osoa Durangoko Museoara ekarri zuten; Durangoko Museoaren bilduma da. Nahiz eta Oteizaren artxiboan Leopoldo Zugazaren hainbat gutun egon, atera dudana ondorioa da euren hartu-eman ez zela oso ona. Esanguratsua da —katalogoan esaten dut— Durangoko Arte eta Historia Museoaren bilduman Gaur taldeko ia artista guztien lanak egotea, Oteizarenak izan ezik. Dokumentu batean, "baztertua", "egin bakoa" edo antzeko zeozer ipintzen du, hemen ditugun obren zerrenda batean, besterik ez. Ez da ezer gehiago aipatzen eta artxiboan abandonatuta geratu zen.

Zuk audio batzuk entzun eta hortik abiatu zen proiektua. Zelakoa da prozesu hori?

Doktoretza-tesia egiten nentzen eta 2018-2019 inguruan Jorge Oteizaren berbaldi batzuk berreskuratu nituen. Hego Amerikan emandako hitzaldiak, hori izan baita, hain zuzen ere, doktoratu ondoren egin dudana ikerketa: Oteizaren argitaratu bako hitzaldi horiek berreskuratzea. Eta berbaldiak bilatzen nentzen, Durangoko bat agertu zen. Garazi Arrizabalaga Museoko zuzendariagaz berba egin nuen erakusketari buruz galdetzeko, baina esan zidan sekula ere ez zela egin. Harrituta geratu nintzen. Sei orrialdeko hitzaldi bat dago, Oteizak hitzaldi hori irakurtzen duen 40 minutuko audio bat dago, piezen oinarrien neurriak dituzten dokumentuak... Material asko dago. Hortik aurrera, Durangoko erakusketarako proiektu hau berre-raikitzea planteatu genuen. Oteizaren proiektu bat. Hau da, piezak Oteizak berak aukeraturikoak, ez beste inork.

Horrek dakarren erantzukizun guztiagaz.

Oteiza maila unibertsaleko artista bat da. Richard Serra eskultore minimalista estatubatuarra esaten zuten moduan, munduko bost eskultorerik ezinbestekoenetariko bat. Eta hori guztia ahalik eta integritaterik handienagaz sortzen ahalagindu behar zen.

Zelan identifikatu dituzue zortzi eskulturak?

Hitzaldi horietan eta beste dokumentu batzuetan obren zerrendak egiten ditu. Hala ere, gatxa izan da, Oteizak proiektua egin zuenetik 50 urte baino gehiago joan direlako eta gauza asko gertatu delako bere inguruan. Bere lanekin osaturiko Fundazio bat dago, ikerketa eta azterketa asko argitaratu da, eskulturaren katalogo arrazoitua dago... Hau da, egoera bestelakoa da, eta obren tituluak ere aldatu egin dira. Lan konplexua izan da Oteiza Fundazioako teknikarientzat ere.

Hautaketa honez zer komunikatu gura izan zigun Oteizak? Zer esan gura zuen?

Oso eklektikoa da, momentu esperimental oso desberdinetako piezak direlako bere laborategi esperimentalaren barruan, 1948tik 1958ra arteko bere esperimentazioaren muina den horretan. Baina oso pieza desberdinak dira, data desberdinetakoak ere bai, urte bateko edo biko aldea baino ez badute ere batzuek. *Espazioaren hustura* da erakusketaren titulua ere. Figurazio apur bat duen estatua batetik abiatzen da, nahiz eta abstraktuago bihurtzen hasi, Arantzazuko Apostoluen eskulturetan legez, eta apurka-apurka masa zabaltzen hasten da. Beste irekiera batzuk egiten hasten da, planoagaz eta arkitekturagaz lan egiten, esferaren desokupazioa beste modu batzuetan landuta.

Zergaitik etorri behar dugu Durangoko erakusketa hau bisitatzerara?

Pribilegio bat delako Durangorentzat obra hauek hemen izatea. Lan batzuk nahiko ezagunak dira; beste batzuk, ostera, oso gutxitan erakutsi diren pieza bereziak dira. Collageen zatia ere badago, gutxi erakusten den obra mota bat, niri pertsonalki asko gustatzen zaidana, eta laborategi eta esperimentazio kutsu handia duena. Bestalde, proiektu berezia da, Oteizaren ideiatik abiatzen delako. Ez da zehazki Oteizak egingo lukeena, jakina, baina ideia mantentzen da, eta ahalik eta ondoen zaintzen eta biltzen ahalagindu gara, gure esfortzu guztiagaz, Oteiza Fundazioaren ezagutzagaz eta denen laguntzagaz. Oteizak Durangori egin gura izan zion opari bat da. Beraz, etortzera gonbidatzen zaituztet.



Desadostasunak

Ezkurdiko Udal Kultur Aretoen garrantziaz jabetzeko, Astola aldiakarian Mikel Onandiaren lan bi irakurtzea komeni da: *Ezkurdi plaza* (9. zenbakian) eta *Udal Kultur Aretokoak* (13. zenbakian); izan ere, Leopoldo Zugazaren zuzendaritzapean euskal abangoardiaren erreferente bihurtu ziren. Aretok 1970eko uztailaren 16an zabaldu zituzten ateak. Inaugurazio erakusketak José María Moreno Galvanek — Triunfo aldizkariako kritikariak— zuzenduriko grafiko bilduma bat bildu zuen, Espainiako arte grafikoetako erreproduktzio, grabatu eta miniaturaz osatua. Ondoren, eta urte amaierara arte, Gipuzkoako margolari gazteen erakusketak kolektibo bat hartu zuten: Marta Cárdenas, Carlos Sanz, Ramon Zuriarrain eta Vicente Amestoyrena; baita Néstor Basterretxearen zeramika, eskultura eta olio-pinturen erakusketak ere, eta beste hainbat erakusketak José Manaut Viglietti margolariari —40ko hamarkadan Durangon konfinatua izan zen bere militantzia antifaxistarengaitik—, Agustín Ibarrolari, Luis Saezi eta Arturo Acebal Idigorasi eskainiak.



Jose Julian Bakedano.

Dirudienez, Leopoldo Zugazak akordioa lortu zuen oraingo *Espazioaren hustura* erakusketak egiteko, baina ez zen gauzatu, ez Leopoldo Zugazak ezta Oteizak ere inoiz argitu gura izan ez zituzten arrazoiengaitik. Oteizak Zugazagaz izan zuen hartu-emanak Leopoldo Zugazak berak Oteizari bidalitako hiru gutunetan ageri da jasota: 1966ko maiatz ingurukoa, 1963ko maiatzaren 1ekoa eta 1972ko maiatzaren 29koa; gaur egun Oteiza Museoko Dokumentu Fondoan daude, baina haietariko bakar batean ere ez da Durangorako erakusketaren aipamenik egiten, eta hori benetan gertaera handia izango zen.

Pentsa dezakegu Oteizaren lehenengo porrot hau (1970), eta gerora etorritakoak (Sabin Etxekoa eta Alondegikoa), erabakigarriak izan zirela eskultoreak bere ondare guztia Azuzari uztea erabakitzeko. Leopoldo Zugazak hainbatetan izan zuen hartu-emanak Oteizagaz: *Quosque tandem...!*-en agerpena, *Acteon* proiektua, *Iruñeko topaketak*, *Barakaldon Convergencia para un vacío* kokatzea; baina ez zuen haietako bati buruz ere azalpen publikorik eman. Oteizak ez zuen erakusketak honi buruzko testigantzarik utzi Miguel Pelay Orozcok idatzitako bere biografia osoan (1978), baina proiektua bere Museo Fundazioan gorde zuen; horri eskerrak, gaur egun Durangoko Arte eta Historia Museon gozatu dezakegu. Erakusketak hau bere garai abstraktuaren sintesizat hartu daiteke, eta 1987an Bilboko Museon egin zen *Propósito experimental* erakusketak osoaren aurrekari legez. Ondorioztatu dezakegu desadostasun honen sekretua Jorge Oteizarena zein Zugazarena dela, eta edozein iritzi oinarrikerik bako hipotesi hutsa baino ez dela.

URRUN IRISTEKO, GERTU.

Andramari
Zomotzako ikastola

0-1 URTEKO MATRIKULA
URTE OSOAN ZABALIK

Bisita
pertsionalizatuak

Letres auzoa s/g 48346 Euzkoia
94 613 29 58 - komunikazio@andramari.eus
www.andramari.com/ikastola/0-1urteko

Eskuahaldunak elkarteak dioenez, 'Mikeldi' eskultura erretiratzea eskatu du udalak

Elkarteak ahalik eta denborarik gehien luzatu gura du eskulturaren biziraupena

Ekaitz Herrera DURANGO

Eskuahaldunak elkarteak kezka begiratzeko Mikeldiko idoloaren eskulturari, Durangoko Udalak erretiratzeke eskatu dio eta. Guillermo Olmo eskultoreen elkartearen lehendakaria da, eta, bere ustez, "Udalak ez du jakin obraren balioa errekonozitzen". "Garrantzi handiko lana dela deritzogu. Aldi baterako geratu behar zen hor, paletetako zuragaz eginda dagoelako, eta, horrenbestez, jakin bagenekielako obrak biziraupen murrizta izango zena. Baina obra iragankorra izan arren, ahalik eta gehien luzatu gura dugu haren denbora", azaldu du Olmok.

Asteon, elkarteko kideek bilera deitu dituzte durangarrak, eskulturari aterabide bat topatzeko. Eguaztenean egin zuten hitzordua, 19:00etan, Madalenosten, eskulturaren aurrean. "Durangarrentzat sortu genuen obra, eta orain herritarren iritzia jaso gura dugu artelanagaz zer egin pentsatzeko. Uste dugu obrak bere bizitzaren erdia egin duela, eta gure nahia beste erdia betetzea da. Hori egiteko aukerarik ez badago, eskultura beste norabait le-



'Mikeldi' eskultura 2023ko abendutik dago Madalenosten.

"Herritarren iritzia jakin gura dugu obragaz zer egin pentsatzeko"

GUILLERMO OLMO
ESKUHALDUNAK ELKARTEA

kualdatzea eskatzen dugu", azaldu du Olmok. "Izan ere, Durangoko Udalaren eskakizunak dio eskultura hilabetean erretiratu ezik suntsitu egingo dutela. Eta guk ez dugu hala korik gura", gaineratu du.

Mikeldiko idoloaren eskultura Madalenosten dago 2023ko abendutik, eta behin-behinean ipini zuten plaza horretan. Berrez, handik hile batzuetara ziren kentzekoak, baina 2024ko martxoan udalak eta Eskuahaldunak elkarteak akordioa lortu zuten obra 2025eko urtarillera arte Madalenosten mantentzeko. Trukean, udalak segurtasuna bermatzeko neurriak eskatu zizkion elkarteari. Akordio hartatik zenbait hilabetetara, artelanak Madalenosten segitzen du.



Ortzi Egia (eskuman) izan zen iazko pintxo dueluko sukaldarietarikoa bat.

Ez Masterchef, ez Bake Off: Napar elkarteak pintxo duelua egingo du

Ekaitz Herrera DURANGO

Telebistako lehiaketa gastronomiko erraldioen inbidiarik barik, Durangoko Napar elkarteak pintxo duelua egingo dute bigarren. Hitzordua prest dago; maiatzaren 28an izango da eta elkarteko kide bi ibiliko dira moka durik ederrenak prestatzeko lehiaketa: Petri Estudillo eta Iban Rodriguez. Sukaldari bakoitzak bina pintxo prestatu beharko du. Hotza bata eta beroa bestea. "Iaz oso gustura geratu ginen emaitzagaz. Sukaldariak eta parte hartzaileak pozarren egon ziren. Beraz, arrakasta ikusita, aurtengo pintxo duelua berriro egingo erabaki dugu", esan du Gaizka Mendiola Napar txokoko kideak.

30 afaltiarrek parte hartuko dute hitzorduan, eta lau pintxoak dastatu ondoren eurek erabakiko dute zein sukaldari den lehiaketako irabazlea. Mokaduei laguntzeko, Solaguen upategiko ardoak izango dituzte lagun (Bastida, Arabako Errioxa). "Sukaldariak zer prestatuko duten ez dakigu, sekretua da, baina badakigu eurretari bat zeozer prestatzen dabilena posterrako", iragarri du Mendiola.

Lehiaketarako leku guztiak bete dituzte. Iaz Zigor Geredia-gak irabazi zuen duelua, Ortzi Egia-aren kontra. Zein izango ote da aurtengo irabazlea? Erantzuna jakiteko, hilaren amaierara arte itxaron beharko dugu.

Zazpi langile bajaran artseniko maila handiagaitik Montorretas enpresan

Jone Guenetxea DURANGO

Durangoko Montorretas enpresako langileen artean alarma guztiak piztu dira urtero egindako analitikan artseniko maila lehenengoz neurtu eta gero. Apirilaren 23an jasotako emaitzen arabera, zazpi langilek artseniko maila handia zuten, horietatik hiruk oso handia. Muga legez, pertsona batek 35 mikrogramo izan dezake gertu litroko, eta langile kaltetu batzuk 400 eta 200 mikrogramotarainoko mailara heldu dira. Emaitza horien aurrean, Mutuak beste azterketa batzuk egin dizkie behargin horiei. Langileetarikoa batek ANBOTOri azaldu dionez, beruna neurtzeko analitikak

egin izan dizkiete orain arte, baina hau artsenikoari buruzko azterketa egin dieten lehenengo aldia da. Beharginak "ardurata" daude substantzia honek euren osasunean izan dezakeen eraginagaitik.

ELA sindikatuko Nagore Aizarnak gogor kritikatu du enpresaren jarrera. "Enpresara gaiari buruzko informazioa eskatzera joaterakoan, erantzun zidaten ez zutela ezer esatekorik. Oso larria da enpresa honetan gertaturikoa", esan du. Osalan Durangoko enpresan gertaturikoa ikertzen dabil. Montorretas enpresan 32 beharginek lan egiten dute, eta batez ere perdigoiak ekoizten dituzte.

Uribarriko egoitza, aldamiarik barik



DURANGOKO UDALA

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak Uribarri egoitzako teilatua konpontzeko eta babesteko lanak amaitu ditu. Material iragazgaitza eman dute teilatuan, eta gainazala zigilatu. Era berean, barruko patioa landaredia garbitu dute, eta Sanagustinalde kalera ematen duen hegala konpondu. Lanotarako 2022tik egon den babes aldamiak kendu dute. Esku hartze osoak 258.946 euroko inbertsioa izan du.

EH Bilduren berbaldi sorta, osasungintza publikoa hizpide

E.H. DURANGO

Durangoko EH Bilduk berbaldi ziklo bat antolatu du Osasun Sistema Publikoaren oraina eta etorkizuna lantzeko. "Osakidetzaren azterketatik harago" joatea dute helburu, eta "ikuspegi holistikoa" eskaini gura dute, "osasuna auzoetan eta justizia sozialean oinarrituta" egon dadin. Hitzordu bi dituzte aurretik: maiatzaren 21ean, 19:00etan, beste udalerrri batzuetako osasun komunitarioko eta ongizate kolektiboko esperientziak partekatuko dituzte Otamotzenako gizarte etxean. Maiatzaren 28an, 18:30ean, osasun mentala landuko dute Kurutzasantun. "Proposamenak partekatuzera" deitu dituzte herritarrik.

AEKren Mintzodromoa Ezkurdiko frontoian, "euskara gehien egingo den eguna" helburu

Egitasmoa "Korrikaren 12. eguna" izendatu dute. Maiatzaren 21ean izango da

Ekaitz Herrera DURANGO

24. Korrika Bilbon amaitu zenetik hainbat aste joan den arren, AEKk manifestazio erraldoiaren "hamabigarren eguna" prestatu du, hau da, Atharratze eta Bilbo hamaika egunean lotu eta bihar-munekoa. "Beti esan dugu ez dela nahikoa Korrikan parte hartzea, hurrengo eguna ere garrantzitsua dela; benetako lan-keta eta konpromisoa behin Korrika igarota datoz. Hortik dator kio izena egitasmoari", azaldu du AEKk. Hori horrela, euskaltegien sareak mintzodromoak antolatu ditu Euskal Herriko 65 herritan, eta Durangon egingo du euretari bat. Maiatzaren 21ean izango da, Ezkurdiko frontoian, 11:00etan.

AEKren berbetan, "oraindino ere euskara praktikatzeko eta euskaraz bizitzeko espazioak behar dira", eta mintzodromoek

beharrizan horri erantzungo diote. Informazio gehiago gura duenak eta Durangoko jardunaldian parte hartu gura duenak www.korrika.eus/etaizangogara atarian eman dezake izena, baita AEKren euskaltegiaren ere.

Bestalde, AEKk gogorarazi du apirilaren 22an ordubeteko eskolak eman zituela doan, hasiera-mailako ikasleentzat edo oraindino euskarara hurbildu ez direnentzat, hizkuntzagaz lehenengo hartu-emana izan dezaten.



Mintzodromo bat Plateruenean. AEK

Durangoko udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko hitzarmena

Ekaitz Herrera DURANGO

Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak eta Bingen Zupiria Segurtasun sailburuak hitzarmena sinatu zuten joan zen barikuan, udalerriko udaltzaingoak eta Ertzaintzak baliabideak eta informazioa partekatu ditzaten aurrerentzean. Polizia-erakunde biek batak besteari datu baseetara sartzeko aukera izango dute denbora errealean, ikerketetarako baliagarriak izan daitezkeen datuak modu efizientean lortzeko. Halaber, hitzarmenak tresnak eta polizia-gailuak optimizatzeko asmoa ere jasotzen du, baita ordena publikoari loturiko gaietan lankidetzan aritzeko bokazioa ere. Horren harira, trafikoa arautzeko, manifestazioak kontrolatzeko eta ekitaldi jendetsuetan ordena mantentzeko planak elkarregaz diseinatzeko bidea zabaldu dute.

Elkoroiriberen iritziz, hitzarmena "mugarria" da, bai "baliabideak modu efizientean kudeatzeko", bai horri eskerrak "se-

gurtasun publikoa hobetuko delako". Bingen Zupiria azpimarratu du itunak "euskal polizia-erakundearen eredu" indartzen duela, eta Durangoren eta Ertzaintzaren arteko lankidetzak "segurtasuna indartzen" lagunduko duela, besteak beste "pertsonek eskubideak eta ondarea" zainduta zein fenomeno meteorologikoen eraginei aurre egiteko koordinatuta.



Elkoroiribe eta Zupiria ituna sinatzen.

Durangoko umeeek bisita gidatua prestatu diete etorri berriei

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko umeeek integrazioa eta abegikortasuna bultzatzeko ekitaldi bat egin dute asteon: ibilbide gidatu bat prestatu diete herrira bizitzera etorri berri direnei. 45 minutuko ibilbidean, 10-12 urteko umeeek udalerriko leku esanguratsu batzuk erakutsi zizkieten: udaletxea eta udal plaza, biblioteca, merkatu plaza,

Landakoko anbulatorioa eta Kurutzia kalea, besteak beste. Ibilaldia mokadu txiki bat eginda amaitu zuten.

Bisita gidatua Haurren Kontseiluaren proiektua da. Kanpotik datozen pertsonen harreraren hobetu beharreko gauzak zeudela identifikatu zuten umeeek, eta, horri erantzunez, bisita gidatua egitea pentsatu zuten.



Bisita gidatuko geldidunetarik bat biblioteka izan zen. DURANGOKO UDALA

LABUR - LABUR

Azterketetarako ikasgelak

Azterketa sasoi dela eta, Bizenta Mogel bibliotekako eta Intxaurrendoko ikasgelekin ordutegi zabalagoa izango dute. Era berean, ikasgela bat atondu dute Landako I kiroldegian.

Oinezkoen mugikortasuna

Durangoko adinekoen mugikortasun seguruari buruzko jardunaldi bat izan dute asteon, Stop Bide Indarkeriaren eskutik. Nahikari Cayado durangarrak egunerokotasunean sortu daitezkeen arriskuen berri eman die.

450 parte hartzaile

Durangoko 450 bat ikasle parte hartu dute Booktrailer lehiaketaren aurtengo edizioan. 100 ikus-entzunezko aurkeztu dituzte guztira. Parte hartzaileak Zaballarra, Landako, Jesuitak eta San Antonio ikastetxeetako eta Durangoko Institututuko ikasleak dira. Irabazleek 300 euroko sariak eta liburu sortak irabazi dituzte.

Udalerri Euskaldunen Eguna

OTXANDIO 2026-05-16

7 harri euskaraz!

10:00	Diana, Kalek Kale txistulariekin.
10:30	UEMaren Batzar Nagusia, Malnandan.
11:30	Herririkiak, haurrentzat, Plazan.
13:00	Ekitaldia, Plazan.
13:45	Udal bandorekin kalejira, kalean zehar.
15:00	Batzkari herrikola.
	Batzkariak, Kalekale egurrezko jolasak, haurrentzako talerak, Araturekin Emajonik galdere-erantzunen jokoa zuzenean eta abar.
18:00	Kalejira Basogain, Urbilbil dultzaineroekin.
18:30	Zazpi harrien inaugurazio ekitaldia, Basogain.
	Bertsolarik, Oihandri abesbatza, Urdui dantza taldea, Kalekale bistulariek...
19:15	Kalejira, Basogaitik Plazara.
20:00	Errigorako produktuen dastoketa, Plazan.
22:00	Lorratz taldearekin erromeria, Plazan.

Batzkarietako baretak eta informazio gehiago: labur.eus/UEE26

Arri ekimena eta Oreka Tx, Maiatza Kulturaleko bigarren asteburuko menua

Oreka Tx-ren saiorako, antolatzaileek Angurretara oinez joateko eskatu dute

Joseba Derteano MAÑARIA

Maiatza Kulturalek aurrera jarraituko du datozen egunetan Mañarian, eta bigarren asteburuan kultur eskaintza berezia izango da herrian.

Zapatuan, Arri ekimenaren barruan, formatu txikiko pieza artistikoak izango dira herriko zenbait gunetan. Korrala Sormen Gunea arduratu da antolaketa lanez, eta, antolatzaileek azaldu dutenez, "antzerki-ginkana baten moduko esperientzia" izango da.

Ikusleek ibilbide bat osatu beharko dute pieza guztiak ezagutzeko. Ibilbideetako txartelak 17:00etan banatuko dituzte, plazan, doan. Kokalekuak sekretupean mantenduko dituzte une horretara arte.

Besteak beste, Ibawa kolektiboaren dantza garaikidea, Karrika Antzerki Taldearen antzezlan, eta soka finkoa clow-



Oreka TXek domekan eskainiko du kontzertua, Angurretan. OREKA TX

nagaz uztartzen duen pieza egongo dira ikusgai. Amaitzeko, Swingtronics taldeak swing eta rock doinuak uztartzen dituen kontzertua emango du 20:00etan, plazan.

Oreka Tx, Angurretan

Domekan, 12:00etan, Oreka Tx taldeak kontzertua emango du Angurreta arte espazioan. Emanaldia doakoa izango da. Antolatzaileek herrigunetik Angurre-

tara oinez joateko eskatu dute, bidea itxi egingo dute-eta ibilgailuentzat. Eguraldi txarra eginenez gero, ekitaldia bertan behera geratuko dela zehaztu dute.

Oreka Tx taldea txalapartaren inguruan sorturiko musika proiektu ezaguna da. Harkaitz Martinez San Vicente eta Mikel Ugarte txalapartariak dira taldearen ardatza, eta urte hauetan ibilbide zabala egin dute nazioartean, euskal musika tradizionala munduko hainbat kulturatako soinuekin uztartuta.

Maiatza Kulturaleko asteko eskaintza beste hainbat ekimenegaz osatzen da. Barikuan, maiatzaren 15ean, Jokin Lasak *Aberrriak eta atzerriak* musika emanaldia egingo du kultur etxean, 19:00etan.

Datorren astera begira, maiatzaren 18an, mural margoketa egingo dute plazan, 18:00etan, Eñaut Aiartzaguenagaz.

Bestalde, maiatzaren 20an, 18:00etan, 'Sorginak' filmaren emanaldia izango da kultur etxean, Asisko Urmenetaren parte hartzeagaz. Saio horren ondoren, Maiatza Kulturale bere hirugarren eta azken asteburuan sartuko da.

Izurtzako nagusien elkarteak egunpasa antolatu du Balmasedara



Adinekoen elkartearen lokala.

J.D. IZURTZA

Izurtzako Erdoitzako Ama nagusien elkarteak Balmasedan egunpasa antolatu du ekainaren 6rako. Goizean bisita gidatua egingo dute eta eguerdian bazkaritara batuko dira. Arratsaldean La Encartada fabrika museoa bisitatu dute. Izen ematea maiatzaren 29an amaituko da. Erdoitzako Ama elkarteak kideek lehentasuna izango dute; ondoren, Izurtzan erroldatutakoek, eta, azkenik, gainerako pertsonak. Bazkideek WhatsApp bidez eman dezakete izena, eta gainerakoek Izurtzako udaletxean.

Auzotarrek Iguria herriguneagaz lotzeko bide segurua eskatu dute

J.D. ELORRIO

Joan zen barikuan, Iguriako auzotarrek elkarretaratzea egin zuten Elorrioko plazan, auzoa herriguneagaz lotzeko oinezkoentzako eta bizikletentzako bide segurua eskatzeko. "Adineko pertsonak, haurrak dituzten familiek edo autoa erabili gura ez dutenek ez dute herrira modu seguruan joateko aukerarik",

salatu dute sare sozialetan. "Agin dutako irtenbideak ez dira heltzen, eta denborak aurrera jarraitzen du. Segurtasuna, duintasuna eta gure herriagaz benetako lotura eskatzen dugu", gaineratu dute.

Mobilizazioak egiten jarraitzeko asmoa dute. Hain zuzen ere, maiatzaren 22an berriro elkartuko dira herriko plazan, 19:30ean.



Maiatzaren 22an beste elkarretaratze bat egiteko asmoa dute.

Elorrioren izen-ematea zabaldu dute auzo-taxi zerbitzua eskatzeko

J.D. ELORRIO

Elorrioko udalak izen-emate epea zabaldu du auzo-taxi zerbitzua eskatzeko. Eta azaldu du 2025eko erabiltzaileek ez dutela berriro izapidetu beharrik eta automatikoki jarraitu dezakete erabiltzaile izaten.

Deialdiak 10.000 euroko aurrekontua du eta 2026an emango diren diru laguntzak arautzen ditu. Laguntzak modalitate bitan banatzen dira: batetik, kolektibo jakin batzuei zuzendutako laguntzak; besteak beste, %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak, 65 urtetik gorakoei, diru sarrera baxuak dituzten familia unitateei edo aldi baterako mugikortasun urria dutenei zuzendutakoak; eta, bestetik, baldintza orokorrak betetzen dituzten gainerako herritarrei zuzendutakoak.

Elorrioren erroldatuentzat

Eskatzaileek Elorrioren erroldatuta egon beharko dute eta dagokion eskaera aurkeztu

beharko dute Herritarren Arreta Zerbitzuan edo legeak aurreikusitako bideen bitartez. Eskaerak aurkezteko epea BAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zabalduko dute. Eskaera egiterako orduan, beharrezkoa izango da identifikazio-agiriak eta, dagokionean, baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztea.



Elorrioko taxi gunea.

Zaintzako langileen eskubideei buruzko berbaldia Iturrin

J.D. ELORRIO

Elorrioko Udalaren Berdintasunerako Arloak eskubide sozialei buruzko berbaldia antolatu du Elorrioren, Mujeres con Voz Elkarteagaz batera. Gaur izango da ekimena, 16:30ean, Iturri kultur etxean, gaztelaniaz. Udalak ohar batean azaldu duenez, batez ere etxeko lanari eta zaintzaren arloko lan eskubideei buruzko zalantzak dituztenei zein ezohiko erregularizazio bideak ezagutu gura dituzten atzerritarrei zuzenduta dago berbaldia. Zaintzaren eta etxeko lanaren arloko informazio eta aholkularitza zerbitzua ere emango dute, sortu daitezkeen zalantzak argitzeko: kontratazioa, ziurtagiri digitalak...

Hizlari bik gidatuko dute saioa: Zuzenbidean lizentzidaduna den Liz Quintanak eta Elorrioko Etxeko eta Zaintzako Lanerako Aholkularitza Zerbitzuaren arduradun Lyudmila Montoyak. Montoya Mujeres con Voz Elkarteak ere bada.




DURANGALDEKO

IKERLARI

GAZTEEN

SARIKETA



Zer aurkeztu daiteke?

Gazteek egindako ikerketa, sormen edo dibulgazio lanak Durangaldeari edo Durangaldeko edozein herriri buruzkoa Gizartea, historia, kultura, ondarea, lurraldea, musika...

Artikuluak · Bideoak · Podcastak · Posterrak

1.500 €-ko saria !

Azken eguna: 2026ko ekainaren 14a

Informazio gehiago:



www.gerediaga.eus

Antolatzailea:



Babeslea:



Durangaldeko Mankomunitatea
Mancomunidad de Durangaldea

Gerbasen kalejiragaz eta dantzarien azken entseguagaz hasi dira santrokazak

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

San Prudentzio jaiak amaitu eta gero, urtero legez santrokazak txanda da orain. Martitzen iluntzean eman zieten hasiera San Trokaz jaiei Zelaietan, Gerbasen kalejiragaz eta Talde Batuak taldeko dantzarien azken entseguagaz.

Gaur, San Trokaz egunez, Talde Batuak dantza taldearen

eta Txanbolin txistulari taldearen ekitaldia egongo da 13:00etan, udaletxeko plazan.

Arratsaldean eta gauean emaldiak egotekoak ziren, baina teknikarien greba dela eta, ekintzok bertan behera geratu dira. Maiatzaren 16an, zapatuan, Ganbarru Txirindulari Elkar-teak antolaturiko txangoagaz emango diote hasiera egunari,

08:30ean. 12:00etan Gerbas kantuz egongo da herritik zehar, eta 14:30ean Gazte Eguneko bazkari herrikoia egongo da Ferialekuan. 18:00etan euskal pilota selekzioaren prestakuntza txapelketa egongo da, eta 19:00etan kalejira Sakatu txarangagaz. Garratz, Skabidean eta 48280 taldeen kontzertuekin amaituko dute eguna.

Domekan, maiatzak 17, Barsanti antzerki taldeak *Kale gorrian* antzezlanaz plazaratuko du Ferialekuan. 17:30ean izango da.



Gerbasen kalejirako argazki bat.



Traña-Matienako jubilatuen egoitza.

Martxan dira Abadiñoeko jubilatuen egoitzak eraldatzeko proiektuak

Traña-Matienako jubilatuen egoitza handitzea da eta Zelaietako jubilatuen taberna eraberritzea da asmoa

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñoeko Udalak iragarri du martxan ipini duela herriko nagusien egoitzak hobetzeko proiektu bi idazteko prozesua. Alde batetik, Traña-Matienako jubilatuen egoitza handitzeko proiektua dute esku artean. "Gaur egungo instalazioek ez diete eskariei behar den moduan erantzuten. Eskaera aspalditik datorren arren, orain arte ez da proiekturik gauzatu. Beraz, lehenengo urratsa emango dugu", azaldu du udalak.

Lehenengo urrats horretan pauso hauek emango dituztela jakinarazi dute: handitze proiektua diseinatzea, beharrezko aurrekontua zehaztea, eta, ondorengo fase batean, lanak gauzatzeko diru partida definitzea.

Beste aldetik, Zelaietako jubilatuen taberna eraberritzea dago. Udalak azaldu du legegintzaldi

agendako konpromiso bat dagoeneko bete dutela, ingurunea hobetzea. "Lehen, trafikoa tabernaren sarrera nagusiaren aurretik pasatzen zen; gaur egun, oster, eremua oinezkoentzat gertatuta dago eta horrek espazioaren bizitasuna, segurtasuna eta irisgarritasuna nabarmen handitu ditu", azaldu du udalak.

Hurrengo pausoa tabernaren barrualdea egokitzea izango dela jakinarazi dute. "Instalazioak zaharkituta daude, batez ere zoria eta komunak. Proiektu berriak alderdi horiek eta beste hainbat hobekuntza jasoko ditu, espazioa eguneratzeko eta erabiltzaileen beharrezkoak egokitze", gaineratu dute.

Gaineratu dute proiektuak diseinatzeko egitasmoa Hirigintza Batzordean jorratu dutela, eta proiektuaren diseinua parte hartzailea izango dela.

Mallabiko Kultur Hilabetea, maiatzaren 17tik ekainaren 12ra

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Kultur Hilabetea ekitaldiz josita dator eta maiatzaren 17tik ekainaren 12ra arte zer gozatu asko izango da herrian. Domekan, maiatzak 17, Bizkaiko Eskolarteko XLIII. gomazko pala finalak jokatu dira, eta ekainaren 12an Biharko Izarrak txapelketakoak. Kultur Hilabeteko lehenengo eta azken jarduerak izango dira horiek. Tartean, zenbait ekintza izango da: 7 Pago mendi lasterketa, elektrotxaranga, abesbatzen kontzertua, berbaldiak eta nekazaritza eta artisautza azoka, besteak beste.



Ainhoa Mugarza zinegotzia eta Igor Agirre alkatea. MALLABIKO UDALA

Aristerrazurako autobusa Mallabitik



Aristerrazuko erromeria. @ARISTERRAZU

M.Z. MALLABIA

Zaparrada elkarteak autobusa antolatu guran dabil ekainaren 14an Aristerrazun egingo den jaira joateko. Horretarako, elkarteak zenbat jende animatuko litzatekeen jakin gura du. Aukera bi daude izena emateko. Alde batetik, Instagram bidez, @zaparrada_elkartea profiler mezua idatzita, eta bestetik 696 058 967 whatsappera bidalita. Ekainaren 5era arte eman daiteke izena.

Atxondon 2026ko herri udalekuekarako izen ematea, zabalik

M.Z. ATXONDO

Ekainaren 22tik uztailaren 24ra herri udalekuak egingo dituzte Atxondon, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrei zuzenduta. Izen ematea martxan da dagoeneko, eta berau asteka egin beharko da. Hau da, umeak tarte hauetan inskribatu ahal izango dira: ekainaren 22tik 26ra, ekainaren 29tik uztailaren 3ra, uztailaren 6tik 10era, uztailaren 13tik 17ra, eta uztailaren 20tik 24ra. Ordutegia astelehenetik barikura, 9:30etik 13:30era izango da. Horrez gainera, hautazko zaintza zerbitzua ere eskainiko dutela azaldu dute. Hori 09:00etatik 09:30era izango da, doan. Hala ere, zerbitzu honetarako ere izena eman behar da.



Maiatzaren 9tik 24ra
2026

MAIATZAK 9

ANTZERKIA 'ARIZONA' AITZIBER GARMENDIA ETA JON PLAZAOLAREKIN
19:00 KULTUR ETXEAN

MAIATZAK 10

KANTU POTEOA
12:30 PLAZAN. KIRIKIÑO ABESBATZAREKIN.

MAIATZAK 12

SENDABELARREN UKENDUAK
EGITEKO TAILERRA GARBIÑE BELLOSOREKIN
18:00 ERREKONDO

MAIATZAK 14

HITZALDIA 'MAÑARIA ETA INGURUKO HEGAZTIAK IKERTZEN' GORKA VALDESEKIN
18:30 KULTUR ETXEAN

MAIATZAK 15

MUSIKA EMANALDIA 'ABERRIAK ETA ATZERRIAK' JOKIN LASAREKIN
19:00 KULTUR ETXEAN

MAIATZAK 16

IKUSKIZUN MARATOIA ARRI EKIMENA
17:00 HERRIAN ZEHAR
KONTZERTUA SWINGTRONICS TALDEA
20:00 PLAZAN

MAIATZAK 17

KONTZERTUA OREKA TX
12:00 ANGURRETA ARTE ESPAZIOAN

MAIATZAK 18

MURAL MARGOKETA EÑAUT AIARTZAGUENA
18:00 PLAZAN

MAIATZAK 20

FILM EMANALDIA 'SORGIÑAK'. ONDOREN, SOLASALDIA ASISKO URMENETAREKIN
18:00 KULTUR ETXEAN

MAIATZAK 22

KONTZERTUA GAR MUSIKA PROIEKTUA
20:00 ERREKONDOKO TERRAZAN.

MAIATZAK 23

JAIA EGUN OSOAN ZEHAR
ANDRAMARI DANTZA TALDEAREN
40 URTEURRENA

ERROMERIA LORRATZ
18:00 PLAZAN

MAIATZAK 24

XXX. EUSKAL AZOKA ETA IX. EUSKADIKO AZPI GORRI TXAPELKETA
11:00 PLAZAN




Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE MAIATZEKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan
(Zornotza)
bi gosari bikoitiz.



Areatza bainuetxea.
Gau bat logela bikoitza, gosaria + zirkuitu termala 2 lagunentzat.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



BASA take away
jaketxeko KMO haragidun eta ogi artisaudun hamburgesa eta bi saltsadun patata errazioa opari. Bariku eta zapatu gauetan gozatzeko.



Uxarto Sagardotegian
birentzako otordua.

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!



Ume, gazte zein helduentzako kronoigoera herrikoia egingo dute zapatuan Andikoan

Asentzio jaien barruan antolatu dute ekimena; lasterketa 17:00etan hasiko da

Maialen Zuazubiskar BERRIZ

Batetik zein bestetik joanda, aldats itzela dago Berrizko Andikoa auzora igotzeko, eta erripa bel-durgarri horiek baliatuta, Andikoara kronoigoera antolatu zuten orain lau urte. "Hemen inguruan ez dakigu halako aldats gogorrik dagoen, eta beti izan dugu gogo horrelako probaren bat antolatzeke. Orain dela lau urte egin genuen lehenengoz", azaldu dute antolatzaileek.

Ez da lehia, proba herrikoia baino, eta antolatzaileek parte hartzeko deia egin diete ziklismo zaleei. "Gura duenak parte hartu dezake kronoigoeran, neska zein mutil, eta baita umeek ere. Bakoitzak ahal duen moduan igotzen du, bizikletatik bajatu eta zati bat oinez eginda ere bai gura izanez gero, eta ez da horregaitik ezer pasatzen. Proba maiatzaren 16an izango da, 17:00etan, eta izen-ema-

tea Azolako errekan egingo da, 16:00etan hasita. Partaide guztiak pintxoak eta edaria izango dituzte helmugan.

Asentzio jaien barruan antolatu dute kronoigoera. Gaur hasiko dituzte jaiak, maiatzak 15, Donien

Atxa jasota. Ondoren, Maite Larbururen kontzertua egongo da. Kronoigoeraz gainera, zapatuan bertso saio musikatua egongo da. Eta domekan Berriztu azoka, dantzariak, herri kirolak eta bollo-joko txapelketa, besteak beste.



lazko kronoigoerako argazki bat.

Ramon Urtiaga karmeldarra gogoratuko dute domekan Zornotzan

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Maiatzaren 18an 89 urte beteko dira frankistek Amorebieta eta Etxano hartu zituztenetik. Hori dela eta, domeka honetan, hilak 17, omenaldi ekitaldia egingo dute gerraren eragina eta mina jasan zituzten zornotzarrak oroitzeko. Aurten Leon Urtiaga Elezburu (Aita Ramon Urtiaga abadea) gogoratuko dute. Zornotza elkarte kultural eta artistikoak gogoratu duenez, Oriamendi Tertioko hirugarren konpainiako erreketek 1937ko maiatzaren 18an fusilatu zuten Urtiaga. "Eguerdian fusilatu zuten, komentuko hormaren kontra, Urtiagak askatasunagaz eta euskal kulturagaz izandako konpromisoagaitik", gogorarazi dute. Halaber, elkarte kideek esan dute Frantziako Alderdi Komunistaren Regards aldizkariak Urtiaga mundu osoan ezagun egin zuela. Izan ere, 1937ko otsaileko zenbakian, Urtiaga fusilatu baino hiru hilabete lehenago, Zornotzako karmeldarrak

eta ezkerreko gudari eta milizianoak ardatz zituen erreportaje bat kaleratu zuen aldizkariak. Maiatzaren 17ko oroimen ekitaldia Zelaietako parkean egingo dute, 12:00etan. Herriko abesbatzek, dantzariak eta txistulariek parte hartuko dute ekitaldian. Gerediaga elkarte kideak ere bertan izango direla iragarri dute antolatzaileek.



Urtiaga, 'Regards' aldizkariko azalean.

Ospakizuna Zornotzan, Kolonbiagazko elkartasunez

E.H. ZORNOTZA

Zornotzako Ogenbarrena auzoak *Kolonbiarekin Elkartasuna* jaia hartuko du datorren zapatuan, maiatzaren 23an, "herrialdeko memoria historikoa, kultura eta bakea bultzatzeko". Ekitaldi sorta 16:00etan hasiko dute, Freytter elkartearen aurkezpenagaz. Segidan, Mauricio Pabon Lozano errefuxiatu politikoa eta elkarte kideak eta Martxelo Alvarezek, Ahaztuak 1936-1977 elkarte kideak, berba egingo dute. Sol Ekinetik erresistentziarako musika saioa egingo du 16:35ean, eta Lolo Callejok cumbia doinuak zabalduko ditu 19:30ean. 20:30ean Txanba Payes kantautore latinoamerikarraren txanda izango da, eta DJ set kolonbiarraz zarratuko dute eguna, 21:00etan. Elkartasun eguna Jorge Adolfo Freytter Romero elkarteak eta Ahaztuak 1936-1977 elkarteak bultzatu dute. Antolatzaileek "kolonbiar herriari elkartasuna adieraztera eta erbesteratuei ikusgarritasuna ematera" deitu dute.

Mugikortasun aurreratuko barrutia sortuko dute Boroan, AIC zentroan

Eremu berrian ibilgailu astun elektrikoak, helikoptero elektrikoak eta 6G teknologia landuko dituzte, besteak beste

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Bizkaiko Foru Aldundiak 37 milioi euro inbertituko ditu Zornotzako AIC enpresan, bertan mugikortasun aurreratuko barruti bat sortzeko. Elixabete Etxanobe Bizkaiko ahaldu nagusiak barikuan aurkeztu zuen proiektu berria, Boroan, udalerriko agintariak eta AIC enpresako ordezkariak lagun. Lantegia 21.900 metro koadro handituko dute, eta espazio berri horretan berrikuntza unitateak, esperimentazio zentroak eta lankidetzaren eremuak

prestatuko dituzte, besteak beste. Bizkaiko ahaldu nagusiak esan du proiektuaren asmoa automobilgintzaren sektorea "sistema zabalago batera" bideratzea dela. "Automobilgintza jada ez da ibilgailuagaz bakarrik ulertzen; sistema zabalago baterantz eboluzionatzen dabil, mugikortasunerantz", azpimarratu du Etxanobek. Hori horrela, planta berrian sei lan eremu landuko dituzte: ibilgailu astun elektrikoak, karga azpiegiturak, datu espazioak, software bidezko ibilgailuak



Aldundiko, Zornotzako eta enpresako arduradunak, joan zen barikuan. BFA

(SDV), mugikortasuna zerbitzu legez, eta ekonomia zirkularra. Gainera, puntako teknologiak landuko dituzte, hala nola eVTOL deritzona, aireratze eta lurreratze bertikaleko aireontzi elektrikoak (helikop-

tero elektrikoak), baita Adimen Artifiziala, 6G teknologia eta teknologia kuantikoak ere.

Etxanobek etorkizunerako lurralde "lehiakorragoa eta berritzaileagoa" izateko prestatu gura du Bizkaia.

Iurretan batzar irekiera deitu dute jaiak antolatzeko

A.B. IURRETA

Iurretako San Migel jaiak geroago eta gertuago daude eta jai batzordea prest dago aurten egitaraua osatzeko lanean hasteko. Horretarako, deialdi irekia egin gura izan die iurretarrei herriko jai nagusien antolakuntzan parte hartzeko, eta datorren maiatzaren 19an egingo dute lehenengo batzarra, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean. Jai batzordeak bertaratzera animatu ditu herritarrak. Sanmigelak irailaren 25ean hasiko dira, eta urriaren 4ra arte iraungo dute. Tradizio handiko ekitaldiekin batera, adin guztietarako ekintzak izaten dira Iurretan.

Garaiko Udalak lursail bat salgai ipini du Milikua aldean

E.H. GARAI

Udalerrian lursail eraikigarri askorik ez dagoela eta, Garaiko Udalak partzela bat salgai ipini du Milikua aldean, familiaren bati herrian bizitzeko aukera emateko. Arloa 3.066 metro karratu zabal da, eta 377 metroko gehienezko eraikigarritasuna du. Salmentarako irteera prezioa 61.690,09 euroan finkatu dute. Interesdunek ekainaren 30era arteko epea dute eskaintzak modu telematikoan aurkezteko (14:00ak arte). Partzelari buruzko argibide gehiago gura duenak Garaiko udaletxean informazioa eta zehetasunak eskatu ditzake, jendaurreko ohiko ordutegiaren barruan.

Lau kirolariren bizipenak Zaldibarren, esperientziak eta euskara ardatz

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Eskualdeko lau kirolariek mahai-ingurua egingo dute Zaldibarren, kirol arloan ikasitakoak jendaurrean kontatzeko eta euren esperientziak ezagutarazteko. Jardunaldia maiatzaren 22an izango da, 18:30ean, liburutegi zaharrean, eta Zaldibarko hiru kirolariek —Nora Narbaiza mendi korrikalariak, Mikel Arroitaonandia mendi korrikalariak eta Ane Miren Alberdi arku tiratzaileak— eta Ibai Zabala pilotari ohi berritarrak parte hartuko dute. Halaber, lau kideek kirola euskaraz bizitzearen garrantzia aldarrikatuko dute. Saioa Iker Ajuriagerra *coach*ak eta Gari-

koitz Sarriugarte bertsolariak gidatuko dute.

Jardunaldia Zaldibarko kirol taldeek antolatu dute, udaleko euskara zerbitzuagaz elkarlanean. Ima Eguen euskara teknikariak gogorarazi duenez, euskara areagotzeko programak ibilbide mardula du kirolean, eta programe-tariko batean Zaldia elkarte-ko zein Biak Bat futbol taldeak parte hartzen dute. "Hilero elkartzen dira euskara kirolean zelan bul-tzatu pentsatzeko. Dekalogo bat eginda daukate eta ikasturtea laster amaituko dela eta, jardunaldi hau antolatu dute kirolean euskara aldarrikatzeko", esan du Eguenek.

7 Harriak proiektua inauguratuko dute Otxandion, zapatu honetan

A.B. OTXANDIO

Herri nortasuna eta balio komunitarioak azpimarratu gura dituen 7 Harriak proiektua inauguratuko dute Otxandion, zapatuan. Udalerrri Euskaldunen Egunaren barruan egingo dute ekitaldia, Basogainen. "Otxandio iraganetik abiatuta orain ulertu eta etorkizunari begiratzeko espazio simboliko bat" sortu dute, udal ordezkariak azaldu dutenez. Bertsolariek, Oihandi abesbatzak, Urduri dantza taldeak eta Kaleik Kale txistulariek parte hartuko dute ekitaldian. 18:30ean hasiko da.

Ekimenak euskalduntasuna, justizia soziala, aniztasuna eta halako balioak irudikatzea du

helburu, eta "herritarren arteko lotura eta komunitate sentimendua indartzea", udalak jakinarazi duenez.



'7 Harriak'. OTXANDIOKO UDALA

PABILIOIA SALGAI

Iurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE ELEXPE

ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateyexpe.com

Batu Egunean Behineko 'Anboto Durangaldea' taldera eta irabazi sariak


M. Z. DURANGALDEA

Astelehenean Egunean Behin jokoaren 21. denboraldia hasi zen eta oraingo nobedadeekin etorri da. Edizio honen babeslea Tokikom da, euskarazko 69 hedabidek osaturiko sarea. Eta babeslea Tokikom denez, Egunean Behinek tokiko hedabideen arteko lehia antolatu du. Liga horretan hamar hedabide daude: Anboto (Duran-

galdea), 28 Kanala (Tolosaldea), Aiurri (Beterrri-Buruntza), Arabako Alea (Araba), Barrena (Debarrena), GiTB (Goierrri), Goiena (Debagoiena), Guaixe (Sakana), Guka (Urola Kosta) eta Hiruka (Uribe Kosta). Eskualdeko Liga horretarako ANBOTOK irakuleen laguntza behar du, zure laguntza behar du. Beraz, sartu zaitez Egunean Behin aplikazioan. Orain-

dino aplikazioa jaitsi barik ba-daukazu, deskargatu lehenengo. Ondoren, ezarpenetara joan, profila eratu eta Tokikom Ligan Anboto (Durangaldea) taldera batu. Behin hori eginda, eguneroko partida jokatu, eta listo.

Eta, jakina, gugaz jokatzek saria du. Taldeko partaideen artean, ANBOTOKo produktu sorta bat zotz egingo dugu. Astelehenero iragarriko dugu irabazlea. Lehiaketa amaieran punturik gehien lortu duen taldekideak Errigorako otzara bat irabaziko du.



Batu Anboto (Durangaldea) taldera.

POLITIKAN

Klasea, edukazioaren alde isila



HERRIAREN ESKUBIDEAK
INDEPENDIENTEAK

Lehenengo egunean pentsatzen nuen zein bitxia den hau: abokatu, merkataria edo politikaria lanbideak hitzetik hortzera bizi dira. Irribarre galduta gabe, "basamortuan hondarra saltzeko" trebetasun ia magiko horrekin konbentzitzen dute, argudioak ehuntzen. Eta, hala ere, gero eztabaida batzuk ikusten dituzu eta galdetzen diozu zeure buruari ea noiz baztertu den argudioa tresna bezala.

Orain, ordea, berehalakotasunak ez digu ia uzten pentsamendua pausatzen, eta eztabaida askotan ideia bat garatu baino lehen etiketa edo eraso pertsonala iristen da.

Eta tonu hori behar ez den tokian agertzen da. Durangoko apirileko osoko bilkuran, adibidez, nahikoa izan zen gobernutik bere soldata merezi ez duen oposizioa norbait esatea dena eremu deseroso horretan murgiltzeko. Eta ez zen esandakoa bakarrik izan, ondoren etorri zena baizik: defendatzeko aukerarik gabe, jada ez dago eztabaidarik, inposaketa dago.

Eta azkenean, begira, pentsatzen hasi naiz agian nahastu egiten ditugula hezkuntza eta edukazioa. Unibertsitateko tituluak ezagutzak bermatu ditzaizkete, baina ez dute beti erakusten nola egon edo nola eztabaidatu duintasunez. Klasea izatea —ikasten ez den hori— beste zerbait da.

DURANGALDEA ASTEON

Edorta Unamunok 'Hegazti Migratzaileak Euskal Herritik' berbaldia emango du

DURANGO Museoen Nazioarteko Egunaren barruan, Hegazti Migratzaileak Euskal Herritik berbaldia antolatu dute. Edorta Unamunok emango du. Maiatzaren 21ean izango da, 18:30ean, Durangoko Kurutzesantu Museoa.

Zornotzako danborradan izena emateko epea zabalik dago dagoeneko

ZORNOTZA Zornotzako Udalak Karmenetako danborradan parte hartzeko epea zabaldu du umeentzat zein helduentzat. Helduen desfilean 16 urtetik gorakoek parte hartu dezakete. Ospakizun biak uztailaren 24an egingo dira. Izen emateak maiatzaren 25a baino lehenago egin behar dira, Zelaietan edo Zornotzako Udalaren atarian.

Pantailei buruzko berbaldiak Kurutziazak eta udalak antolatuta

DURANGO Telmo Lazkano ikertzaileak eta Gregorio Montero mediku psikiatrak pantailek nerabeengan duten eragina aztertuko dute gaur, 17:30ean, San Agustinen. Maiatzaren 26an, digitalizazioak hezkuntzaren arloan planteatzen dituen erronkak aztertuko dituzte, San Agustinen, 18:30ean.

Durangaldeko Shinova musika taldeak Bilbao Basketen ereserki berria egin du

DURANGALDEA Shinovak Bilbao Basketen ereserki berria kaleratu du, *Sua gara*. Bertan, gainera, GAREko Jon Garcia durangarrak ere kolaboratu du. "Benetako ereserki bat gura genuen, eta hori egiteko Shinovakoak aproposak zirela ikusi genuen", azaldu dute Bilbao Basketeko kideek.



BILBAO BASKET

GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa / Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902



Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,

Joseba Derteano Bilbao,

Maialen Zuazubiskar

Gallastegi, Aritz Maldonado

Zabala.

Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua



BURUARI KLIK!



ITZALAK

Zein itzal dagokio beheko irudi bakoitzari?



KIMU KUKUKA

BA AL DAGO INOR ZURE HORTZEN ARTEAN BIZITZEN?

HORTZAK GARBITU LOTARA JOAN ALBERTIKI

ZE NAGIA, PASO...

AII

TXANTXARRA HORTZETAKO EHUN GOSORREN, ESMALTEAREN ETA DENTINAREN, SUITSIPEN LOKALIZATUA DA.

1 AHOKO BAKTERIOEK ZURE HORTZEN ARTEAN GERATZEN DIREN JANARI-HONDARRAK HARTZEN DITUZTE...

2 ...ETA ESMALTEA ETA DENTINA ERASOTZEN DITUZTEN AZIDOAK SORTZEN DITUZTE, HORTZETAN PITZADURAK ETA ZULDAK SORTUZ.

3 TXANTXARRA HORTZ BARRURA IRISTEN BADA, GAL. EGIN DEZAKEGUL!


BARRA BADA SENDABIDERIK? ESADAZU BAIETZI!

TXIKITATIK ERAKUSTEN DIGUTE HORTZAK GARBITZEAREN GARRANTZIA.

DENOK DAKIZKIGU OHITURA HORI EZ JARRAITZEAREN ONDORIOAK: TXANTXARRAI

EZAGUTU TXANTXARREI ETA HAREN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIO GERTUAGO ZIENTZIA KAIERA BLOGEAN

LABIRINTOA






ZENBATU

Objektu bakoitzetik zenbat aurkitu ditzakezu?



MATEMATIKAK



ARTEA

"Txori baten berotasuna eta arintasuna dituen pieza bizi bat sortu gura izan dut"

JON MIKEL EUBA AURRE
DIZIPLINA ANITZEKO ARTISTA

Nazioartean oihartzun handia duen artista zornotzarrak 'Zornotxori' pieza instituzionala sortu du



Jon Mikel Euba, berak sorturiko 'Zornotxori' pieza eskuetan.

Aitziber Basauri ZORNOTZA

Zornotzako Udalak *Zornotxori* oroigarri instituzionala sortu du, ekitaldi eta aintzatespenetan ikur legez emateko. Jon Mikel Eubak (Zornotza, 1967) sortu du pieza. Hain zuzen ere, Euba bera izan da lehenengoa aitortza hartzen; "ilusio handiz", esan duenez. **Zelan hartu zenuen Zornotzako Udalak egindako enkargua?**

Ilusio handiagaz. Urte asko dira Zornotzan bizi ez naizela, baina beti hartu dut neure burua zornotzartzat. Gainera, oso gertuko pertsonak ditut bertan. Norbere herrian profeta izatearen modukoa da, eta ez da askotan gertatzen. Lana dela eta, leku askotan bizi izan naiz. Istanbulen, Alemanian, Mexikon... Azken lau urte hauetan, Holandan. Artista legez hazten joan naiz eta asko ikasi dut. Ez da berdina ezagutzen zaituzten testu-

guru batean aritzea edo Korea lan bat egitera gonbidatua izatea, hango kultura guztiz desberdina da eta. Horrek asko aberasten du bakoitzaren lana. Dena dela, 2000. urtean estudioa zabaldu nuen Bilbon. Hori izan dut beti egoitza.

Zer izan duzu kontuan 'Zornotxori' sortzerakoan?

Txikitan oso gustuko nituen biologoen landa-koadernoak (hegaztien morfologia, portaera... aztertze erabiltzen ziren). Naturalista izateko interesa izan dut beti, eta umetan aitagaz Belatxikietara joaten nintzenezan liluratuta ikusten nituen buztingorriak. Gaur egun, Zornotzako edozein tokitan dabilta. Oso zuhurrak direnez, ez ditugu askotan ikusten eta nik azaleratu egin nahi nituen. Ideia horretatik abiatu eta zuhaitz hostoak baliatuta, txori baten

silueta sortu nuen. Lehenengo begiratuan txori bat ikusten da, eta segituan hosto bi. Azken batean, txori bat irudikatzen duten hosto fotografiko bik osatzen dute lana. Jendearen iruditeriara jotzea gustatzen zait, eta mundu guztiak aldi berean gauza bi ikusteko aukera izatea gura nuen. Txori baten berotasuna eta arintasuna dituen pieza bizi bat sortu gura izan dut, enigmatikoa eta positiboa. 'Zornotxori' neologismo aproposa iruditu zait, Zornotza eta txori berbak elkartuta.

"Txori bat irudikatzen duten hosto fotografiko bik osatzen dute pieza"

Zure obra diziplina anitzekoa da (bideogintza, argazkilaritza, performance-a, eskultura....) Zelan uztartzen dituzu?

Arte Ederrak ikasterakoan, artearen historiak erakarri ninduen gehien. Orduan, identitate sozial bat zegoela ikusi nuen: artista; zelanbait esanda, artista izanda aukera eremu izugarria zabaltzen zela. Artistaren figura hori interesatzen zait: edozein bitartekogaz espresioa hedatzeko edo transmititzeko gaitasuna. Pintura, muralgintza, argazkigintza, bideogintza, performance-ak, idazketa... diziplina batek bestera eraman nau, eta bakoitzean egokitzen joan naiz, naturaltasunez.

Transmisioak eta pedagogiak pisu handia dute zure ibilbidean. Zer transmititu gura diezu artista belaunaldi berriei?

Koadro bat pintatzen ikastea baino inportanteagoa da inork

deitzen ez dizunean ere margotzen jarraitzea. Artista izateak zer esan gura duen jakin behar da, eta oinarriak sendotzea ezinbestekoa da horretarako: jakitea zerk eraman zaituen artista izatera, zergaitik jarraitu gura duzun. Gaztetan gatz izaten da horretaz jabetzea, jakina. Baina batzuetan gertatzen da norbaitek zuk zeuk ikusi ez duzun zerbait ikusten duela zuzan, eta bidea egiten laguntzen dizu. Zornotzan, gauzak erraztu dizkidaten pertsonak ezagutu nituen; tartean, Iturrioz familia.

Zein proiektu duzu orain esku artean?

30 urtean ikasitakoa liburu batean argitaratuko dut laister. Eta uztailean Buenos Airesera (Argentina) joango naiz. Ibarrangelun (Bizkaia) erakusketa bat dut urte amaieran.

TOKIKOM LIGA

egunean behin?

OSATU ZURE PROFILA ETA IRABAZI!

Anbotogaz jokatzek saria dakar!

Parte hartu EguneanBehin-eko Tokikom Ligan ANBOTO (DURANGALDEA) taldeagaz



Dantzariak Durangon. GERMAN ZORRAQUIN FUNTSA. GEREDIAGA.

ONDAREA

Gerediagak German Zorraquinen 1.500 irudi bistaratu ditu

E.H. DURANGO

Gerediaga elkarteak German Zorraquin argazkilari bilbotarraren funtsa bistaratu du *gerediaga.eus* atarian. 1.549 aleko argazki bilduma da, 1930eko hamarkadako paisaiak, bizimodu eta monumentuak ageri dituenak. Besteak beste, garaiko gizartea, eguneroko bizimodu, ekitaldi erlijioso eta politikoak, ezkontzak, bataioak eta jaunartzeak daude irudien artean. Era berean, 1936ko estatu kolpearen osteko gerra giroko argazkiak ere bildumaren zati dira. Zorraquinek Otxandioko bombardaketari buruzko argazki erreportajea egiteko mandatua jaso zuen, eta urtebete geroago Durangoko

bonbardaketaren ondorioak ere dokumentatu zituen.

German Zorraquin Begoña auzoan jaio zen, 1886an, eta oso gazterik hasi zen argazkilaritzan, Mauricio aitagaz, Zazpikaleetako Posta kaleko estudioan. 1909an, euskal baserriarren, arrantzaileen eta baserri zaharren erretratu bildumarik onena aurkeztuta, *Circulo de estudios Vascos* argazki lehiaketa irabazi zuen. 1914an bere argazki estudioa zabaldu zuen Durangoko Ermodo kalean, Fabian Areitioren ondoren. Zumalakarregi kalera lekualdatu zen. Zorraquin erreferentziatzko argazkilaria izan zen Durangon.

ZINEMA

Lara Izagirre zornotzarra pelikula berria filmatzen dabil: 'Yerma'

E.H. ZORNOTZA

Lara Izagirre Garizurieta zinemagile zornotzarra buru-belarri

dabil bere hirugarren film luzea izango dena grabatzen: *Yerma*. Ikus-entzunezkoak Federico



Lara Izagirre filmazioko momentu batean. NUEVE CARTAS


ERAKUSKETA

Espazioari buruzko gogoeta pizteko erakusketa ikusgai Zornotzan

A.B. ZORNOTZA

Espazioaren inguruko gogoeta proposatu gura duen erakusketa zabaldu dute Zornotzako Zelaia Zentroko erakusketa aretoan. Andrea Aguilaren, Gabriele Muguruzaren eta Carmen Valeroren lanek arkitekturaren, denboraren eta pertzepzioaren arteko hartu-emanak aztertuko dituzte. Erakusketa ekainaren 5era

arte dago ikusgai eta Maite Choya da komisarioa. Bitartekaritza, erakusketa eta dibulgazio artistikorako espazio berriak prestatzera zuzendutako Harriak arte garaikideko programaren barruan prestatu dute. Programa EAEko hainbat kultur etxetako aretoetan hedatzen da, eta sortzen eta hazten dabilzan artista eta bitartekarien partaidetza du.



Erakusketa aurkezpeneko irudi bat. UDALA

GAI LIBREAN



LIBE MIMENZA CASTILLO

EHUKO IRAKASLE ETA IKERTZAILEA

Euskararen udaberria

Euri osteko asfalto hezearen usaina hartzen du aireak egunotan eta polena ikusi egiten da etortzen eguzki argitan. Korrika zoaz kapitalaren periferiako herri baten kanpo alderantz, ostadar bikoitz baten azpian: tipi errepidea, tapa supermerkatuak, tipi fabrikak... Eskumuturrean dardara: 3 kilometro erlojuan, ekin! Bi ume arrazializatu parean eskutik helduta, eta elkar gurutzatzearekin batera hasi duten kantuarekin egin du eztanda fikziorik bako errealtatearen udaberriak: *Maitasun eskutitz baten bide luzea*, *Xiberutikan Mendebaldera*... %10en bueltakoa da hemen euskararen kale erabilera, halere, ba-ga-ra.

Bilbon are txikiagoa da hizkuntzaren paisaia sonoroan euskarak duen tasa, baina maiatzean talde terapia saio bat euskaraz egiteko aukera eskaini dizute. Zentroak erabaki du euskal hiztunoi boterea ematea

"%10en bueltakoa da hemen euskararen kale erabilera, halere, ba-ga-ra"

"Dardara berri bat dator datorren astean: euskara gehien hitz egingo den eguna"

euskararik ez dakienari betoa jarri eta gure hizkuntza eskubideak bermatzeko. Euskaraz izango da asteburuko tailerra.

Eta ehunka herritar gara errenta aitortpena gure hizkuntza gutxitu honetan egiten, beste ehunka Euskerak aktibatu eta Euspaioak martxan jartzen, ehunka euskaltzale «Euskaraz bizitzeko behar den dena» eskatzen, ehunka gazte desobedientziaren bidea kolektiboki aldarrikatuta azterketak euskaraz egingo dituen belaunaldia gorpuzten.

Dardara berri bat dator datorren astean: 2.175 kilometroren biharamuneko Korrikaren 12. eguna, 65 mintzodromo antolatuta Euskal Herrian euskara gehien hitz egingo den eguna.

Gertatzen ari da: *fabula argitsu bat, garai ilun barentzat*. Urtaro berri bat piztu dugu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 15

- **ABADIÑO 'Ahotsa landu'** tailer intentsiboa. Amaraun Arte Fabrian, 10:00etan. Maiatzaren 15etik 17ra.
- **BERRIZ 'Gu ere bagara!'** Getxoko LGBTIQ+ adineko pertsonen bizipenak, errealitateak eta ahotsak biltzen dituen erakusketa. Berrizko Kultur Etxean, maiatzaren 19ra arte.
- **DURANGO 'Artistaren aztarna'** J.L. Martinez de Antoñanaren omenez, Durangaldeko Artisten Elkarteak antolatutako erakusketa. Ezkurdi aretoan, maiatzaren 17ra arte.
- **DURANGO 'Espazioaren hustura'** Jorge Oteizaren

obra. Arte eta Historia Museoa, irailera arte.

- **DURANGO 'Pantailen erabileraren eragina haur eta nerabeengan'** Berbaldia. Hizlariak: Telmo Lazkano ikertzailea eta dibulgatzailea, eta, Gregorio Montero mediku psikiatra. San Agustin kulturgunean, 17:30ean.
- **DURANGO 'Olibondoaren herria'** Liburu aurkezpena. Markel Elorzak Palestinaren gatazka ulertzeko gakoak batu ditu liburuan. Hitz liburu dendan, 19:00etan.
- **ELORRIO 'Etxeko lanaren eta zaintzaren arloko lan eskubideak'** Berbaldia. Hizlariak: Liz Quintana Zuzenbidean lizentziatua eta prokuradorea eta Lyudmila Montoya Elorrioko Etxeko



RHAPSODY OF FIRE

DURANGO Koba Jaialdia Rhapsody of Fire (Italia) + Onslaught (Ingalaterra) + Killus (Espainia) + Injector (Murtzia) + Txatar (Euskal Herria). Plateruenean, maiatzaren 16an, 18:00etan.

eta Zaintzako Lanerako Aholkularitza Zerbitzuaren arduraduna. Iturri kultur etxean, 16:30ean.

- **MAÑARIA 'Aberriak eta atzerriak'** Jokin Lasaren emanaldia. Kultur etxean, 19:00etan.

ZAPATUA 16

- **DURANGO Ernemuinen eta kimu ekologikoen artisa-laborantza.** Berbaldia: Germinados KIMUAK (Mungia). Merkatu Berrian, 08:30etik 12:30era.
- **DURANGO Izar Records Lehiaketa** Etorkizun Beltza+ Alex de Benito Project+ Shut You On. Plateruenean (11:30-14:30).
- **IURRETA Arrozen Eguna** Arroza prestatzeko suak isiotuko dituzte 11:00etan. Tea eta pastak dastatzeko aukera, 11:30ean. Tailerrak, Ghanako txarangak girotuta, 12:00etan. Arrozen dastatzea, 13:00etan (sariak, 14:15ean). Bazkaria, 14:30ean. Musika, 16:00etan. Askondoko aterpean.
- **MAÑARIA Arri ekimena** Ikuskizun maratoia. Mañarian, 17:00etan.
- **MAÑARIA Swingtronics** Kontzertua. Plazan, 20:00etan.
- **OTXANDIO UEMA Eguna** Diana, Kaleik Kale txistulariekin, 10:00etan. UEMAren Batzar Nagusia, Mainondon, 10:30ean. Herri kirolak haurrentzat, plazan, 11:30ean. Ekitaldia, plazan, 13:00etan. Udal bandagaz kalejira, 13:45ean. Bazkari herrikoia,

15:00etan. Gero, Kalaka egurrezko jolasak, tailerrak, Airaturekin Emojonk! jokoa... Kalejira Basogaira, Urbiribil dultzaineroekin, 18:00etan. Zazpi harrien inaugurazioa: bertsolariak, Urduri dantza taldea, Oihandi abesbatza, txistulariak... Basogain, 18:30ean.

- **ZORNOTZA 'Alai familiar'** Umeentzako ikuskizuna, Lasala konpainiaren eskutik. Zornotza Aretoan, 17:30ean.
- **ZORNOTZA Sergio Arrospide** Bakarriketa komikoa. Etxanon, 19:00etan.

DOMEKA 17

- **MAÑARIA Oreka TX** Kontzertua. Angurreta kultur espazioan, 13:00etan.
- **ZORNOTZA Oroimen ekitaldia** Leon Urriaga Elezburu, Aita Ramon Urriaga abadea gogoan. Zelaletako plazan, 12:00etan.

ASTELEHENA 18

- **MAÑARIA Mural margoketa** Eñaut Aiantzaguena gidatuta. Plazan, 18:00etan.

EGUAZTENA 20

- **ABADIÑO 'Zorionak niri'** Ane Gebara ipuin kontalaria. Mediatekan, 17:00etan.
- **ELORRIO 'Kainaberako kideen lana Nikaraguan'** Kainaberak antolatutako

berbaldia. Hizlaria: Inma Escribano eta Iñaki Agiriano. Iturri kultur etxean, 18:30ean.

EGUENA 21

- **DURANGO Basque Wine** Arabako Errioxako ardo eta olioen dastatzea. Merkatu Berrian, 18:00etan.
- **DURANGO Mintzodromoa.** Ezkurdiko frontoian, Lorratz taldea, 21:00etan.
- **DURANGO 'Hegazi migratzaileak'** Berbaldia Hontza museoa antolatuta. Hizlaria: Edorta Unamuno. Kurutzasantu museoa, 18:30ean.

BARIKUA 22

- **MAÑARIA Gar** Kontzertua. Errekondo aurrean, 20:00etan.
- **DURANGO Nerea Arrieta Trio** Kontzertua. Otamotzena auzogunean, 19:00etan.
- **IURRETA 'El encargo'** La Red Teatroyen lana. Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.
- **ZALDIBAR 'Kirola: bizitzarako ikasgai'** Berbaldia. Hizlariak: Nora Narbaiza eta Mikel Arroitaonandia korrikalariak, Ane Miren Alberdi arku-tiratzzailea eta Ibai Zabala pilotari ohia. Garikoitz Sarriugarte bertsolariak eta Iker Ajuriagerra coach-ak gidatuta. Liburutegi zaharrean, 18:30ean.
- **ZORNOTZA Amoreszena Jaialdia** Askotariko ikuskizunak Itineránia, Adrian Conde, Markeline eta Hortzmuga konpainien eskutik, herriko hainbat tokitan, egun osoan zehar.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Maracuda

Domeka 17: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

El beso de la mujer araña

Barikua 15: 18:00,

20:30.

Zapatua 16: 17:00,

19:00, 21:30.

Domeka 17: 17:00,

19:30.

Astelehena 18: 17:45,

20:15.

Martitzena 19: 17:45,

20:15.

Eguaztena 20: 19:00.

Jugada maestra

Barikua 15: 18:00,

20:30.

Zapatua 16: 19:30,

21:30.

Domeka 17: 19:30.

Astelehena 18: 18:00,

20:15.

Martitzena 19: 18:00,

20:15.

Eguaztena 20: 19:00.

Iron Maiden. Burning Ambition

Barikua 15: 20:30.

Zapatua 16: 17:20,

21:30.

Domeka 17: 20:00.

Astelehena 18: 20:15.

Martitzena 19: 18:20.

Eguaztena 20: 19:00.

Hugo 24

Barikua 15: 18:00.

Zapatua 16: 19:30.

Domeka 17: 18:00.

Astelehena 18: 18:00.

Martitzena 19: 18:00.

Les legendaries

Zapatua 16: 17:00.

Domeka 17: 17:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Todo lo que fuimos

Zapatua 16: 20:00.

Domeka 17: 20:00.

Astelehena 18: 20:00.

MAÑARIA

KULTUR ETXEA

Sorginak

Eguaztena 20: 18:00

(Ondoren, solasaldia

Asisko Urmenetarekin).

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Kraken, el libro negro de las horas

Domeka 17: 20:00.

Astelehena 18: 20:15.

Maracuda

Domeka 17: 17:00.

Un poeta

Martitzena 19: 20:15.

San Trokaz
ABADIÑO /
ZELAIETAMAIATZAK 15
SAN TROKAZ

- **13:00** Talde Batuak dantza taldearen eta Txanbolin txistu taldearen ekitaldia San Trokaz plazan.
- **18:00** Familientzako kontzertua: Txiki rock. (Bertan behera geratu da)

- **19:00** Kontzertuak Gaztetxean.

• *Turbot*
• *Ainke*

- **22:00** Erromeria

• *Laprast*

(Bertan behera geratu da)

MAIATZAK 16
GAZTE EGUNA

- **8:30** Ganbarru Txirrindulari Elkartearen txangoa. Informazio gehiago: www.ganbarru.eus

- **12:00** Gerbas kantuz.

- **14:30** Gazte Eguneko bazkari herrikoia Ferialekuan.

- **18:00** Euskal Herriatik Mundura: Euskal pilota Selektzioaren prestakuntza-txapelketa.

- **19:00** Kalejira Sakatu txarangagaz.

- **22:00** Kontzertua

Txanporta plazan:

• *Garratz*
• *Skabidean*
• *48280*

MAIATZAK 17

- **17:30** Kale antzerkia Ferialekuan: Kale gorrian (Barsanti antzerki taldea).

MAIATZAK 22

- **17:00** Zirku tailerra Txanporta plazan.
- **18:00** Zumba Txanporta plazan.

- **18:30** Añeketan taldeak antolatutako martxa herrikoia. Urteera Txanporta plazan.

- **20:30** Antzerkia probalekuan: **Nor naizen baneki (Axuti-ArteDrama)**. Gonbitak eskuragarri Udal Mediatekan eta Errota Kultur Etxean maiatzaren 11tik aurrera (gehienez 4 sarrera pertsonako).



Bere agintaldian, SD Amorebietak sortu zeneko mendeurrena ospatu du.

FUTBOLA

"Bizi-bizirik dagoen klub bat uzten dugu, lotura estua duena herriko jendeagaz"

JON LARREA GONZALEZ AMOREBIETA FUTBOL TALDEKO PRESIDENTEA

Zortzi urtean SD Amorebietako presidentea izan eta gero, lekukoa beste bati emateko sasoia dela dio. Ez da aurkeztuko hauteskunde prozesura

Joseba Derteano ZORNOTZA

Klubak une historikoak bizi izan ditu Jon Larrearen agintaldian: Bigarren Mailarako igoera bi eta mendeurrenako ospakizuna, besteak beste. Bere hasierako urteetan, Larreak egoera ekonomiko larri bati ere aurre egin behar izan zion. Orain, lekukoa beste batzuei emateko unea heldu dela uste du. Harrobian egindako lana, klubaren egonkortasuna eta herriagaz izan duen lotura nabarmendu ditu.

Albo batera egin eta lekukoa beste bati emateko asmoa duzue. Zergaitik?

Uzteko momentua heldu dela uste dugulako. Askotan ez dakizu zehatz momentu hori zein den. Lehenengo legegintzaldia amaitu zenean ere pasatu zitzaigun burutik, baina pandemia eta beste gauza batzuk tarteko, ez genuen astirik izan

gura genuen dena egiteko. Orduan, beste lau urtean jarraitzeko asmoa erakutsi genuen, eta bazkideen babesagaz aurrera jarraitu genuen. Baina zortzi urteren ondoren, uste dut badela ordua ideia berriekin eta ilusioz etorriko den jende berriari tokia egiteko, leihoak zabaldu eta aire berria sartzen uzteko. Momentu hau egokia da pauso hori emateko. Urte hauetan zuzendaritzakoek egindako lana eskertu gura nuke. Eurak barik ni ez nintzen hemen egongo.

Hauteskunde prozesua laster hasiko da. Badakizu zerrendarik aurkeztuko den?

Guri hautagaitza bat etorri zaiagu, eta, beraz, bat behintzat badago. Ikusi egin beharko da gehiago aurkezten diren.

A zelako zortzi urte, Jon. Bigarren mailarako igoera bi, mendeurrene-

ko ospakizuna, eta klubeko egoera ekonomikoa onbideratu beharra. Urteotan lortutakotik zerk sentiarazten zaitu harroen?

Zortzi urteren ondoren SD Amorebietak bizirik jarraitzen duela, horixe da harroen sentiarazten nauena. Esan duzun moduan, gu sartu ginenean egoera ekonomikoa ez zen batere ona, zorritzarrez. Klubak 500.000-600.000 euro inguruko zorra zuen. Hartzekodunen aurre-konkursoan sartu ginen. Kluba desagertzeko zorian zegoen.

Zelan bideratzen da horrelako egoera bat?

Jendearen fede onari eta esku-zabaltasunari eskerrak, besteak beste. Lehenengo-lehenengo, klubaren egoera publiko egin eta laguntza eskatu genuen. Jendeak ikusi zuen ez ginela gu errudunak, arazoa aurretik zertorrela, eta jende askok barkatu

egin zuen bere zorra klubaren alde. Jende askok lagundu zigun eta eurei eskerrak atera genuen kluba aurrera.

Zein da hurrengo presidenteari eta zuzendaritzari uzten diozuen legatua?

Bizi-bizirik dagoen talde bat uzten dugu, herriko jendeagaz lotura estua duena eta harrobiari begira lan handia egiten duena. Harrobiari garrantzi handia eman diogu. Athletic kenduta, Bizkaian filiala mailarik gorenean dugun taldea gara. Gainera, gazteek liga irabazi dute. Metodologia bat, 'mentoring', prestatzaile fisikoak eta fisioterapeutak sartu ditugu Txolonon [harrobiko taldeak entrenatzen diren zelaia] eta esango nuke harrobiagaz lan sakona egin dugula.

2021ean SD Amorebieta Bigarren Mailara igo zen, bere historian lehenengoz. 20.000 biztanleko herria Bigarren Mailan, alajaina. Zelan gogoratzen duzu momentu hura?

Pandemiaren urtea izan zen, oso urte arraroa. Badajozera joan ginen igoera jokoan genuela, eta egia esango dizut: ni asteburua pasatzera joan nintzen. Emaztea eta seme txikia ere etorri ziren. Ez dut esango opor txiki batzuen moduan hartu nuenik, baina inongo presiorik barik joan ginen. Gogoan dut Iñigo Velez de Mendizabal entrenatzaileak, Asier Goiriak, jokalariek... esaten zidatela: "Presi, irabazi egingo dugu, ez zalantza izpirik izan". Eta konturatu orduko epaileak partiduaren amaiera adierazi zuen eta... Aiba, Bigarren Mailan geunden!

Zale eta jokalarientzat ospatzeko garaia, eta zuzendaritzarentzat erronka erraldoia! Zelan bizi izan zenuen kontraste hori?

Erronka handia zen, bai. Gogoan dut autobusean bueltan gentozen unea: jokalariai dantzari, eta autobusean gora eta behera zebiltzala, ni txoferraren atzeko eserlekuan nindoan, burua aurreko barran ipinita. "Ez zaude pozik, ala?" galdetu zidan emazteak. "Badakizu zer datorren orain? Badakizu zelako erronka den?", erantzun nion. Pozik nengoen, jakina, baina ez neukan ospatzeko astirik ere. Buruari bueltak ematen nenbilen erronka zelako bideratu pentsatzen. Gogoan dut hilabete geneukala La Ligan sartzeko eta eskakizunak betetzeko. Sinestezina dirudi, baina azkenean lortu genuen.

Amorebieta Lehen RFEF Mailan eta Bigarren Mailan egon da, eta gaur egun Bigarren RFEF Mailan dabil. Bizitakoak bizita, zure ustez zein da klub honen errealitateari ondoen egokitzen zaion maila?

Nire ustez, eta harrotasun handiz diot, Bigarren RFEF maila da ondoen egokitzen zaiona, bazkideen kopuruagaitik, instalazioen baldintzengaitik, aurrekontuagaitik... argi dago amets bat bizi izan dugula, baina gure errealitatea Bigarren RFEF batean egotea da. Gainera, maila honetan, herriko jokalarien aldeko apustua egitea errazagoa dela uste dut. Honek ez du esan gura anbiziotsuak izan behar ez dugunik, baina beti ere oinak lurrean izanda.

Urte hauetako esperientziak zer irakatsi dizu arlo pertsonalean?

Ba, ez dakit hausnarketa hori modu sakonean egin dudana; kontzientzia lasai izaten ahalegindu behar duzula. Hartutako erabakiak onenak direla uste arren, igual beste batzuek ez dituzte ulertzen edo pentsatzen dute haientzat kaltegarriak direla. Orduan, ba horregaz bizi izatea askotan gogorra egiten da. Sarritan hartu-eman pertsonalak egiten dituzu eta testuinguru horretan ez da erraza erabaki batzuk hartzea. Inoiz esan diot entrenatzaile edo langileren bati ez zuela taldean jarraituko, nahiz eta behar bada nire erabakia izan ez. Une gogor horiek eramaten ikasi behar duzu.

Zelan joan ziren mendeurrenako ospakizunak?

Oso pozik gaude ekimenek izan zuten harreragaz. Erakusketa, dokumentala, lehiaketak... eta gehiago izan genituen. Unai Larrea anaiari eta Ana Guzman emazteari antolaketan egindako lana eskertu gura nieke. Lan itzela egin zuten.

"Nire ustez, eta harrotasunez diot, Bigarren RFEF Maila egokitzen zaio ondoen klubari"

"Sarritan hartu-eman pertsonalak egiten dituzu eta ez da erraza erabaki batzuk hartzea"

TXIRRINDULARITZA

Itzulia Women eta Durangoko Klasikoa; hitzordu bikoitza ziklistarik onenekin

Zapatu honetan eta maiatzaren 19an goi mailako ziklistak ibiliko dira eskualdean

Joseba Derteano DURANGALDEA

Datozen egunetan, goi mailako txirrindularitzak hitzordu garrantzitsu bi ditu Durangaldean; bihar, maiatzak 16, Itzulia Womeneko bigarren etapa Abadiñon hasi eta Zornotzan amaituko da, eta maiatzaren 19an Durangoko Klasikoak hartuko du lekukoa.

Zelaieta auzoa munduko txirrindularirik onenekin beteko da bihar goizean, han hasiko baita Itzulia Womeneko etapa. Irteera 09:30ean izango da, udalletetik. Handik Ferialekura joango dira, eta Ferialekutik Muntzaratzera, errepide nagusira irten aurretik. Zornotzarainoko ibilbide osoak 138 kilometro ditu. Hirugarren mailako bost mendate igoko dituzte: Trabakua, Milloi, Natxitua, San Pelaio eta Aretxabalgane. Mendateak elkarren segidan kateatu beharrak tropela zatitu dezakete. Zornotzako Nafarroa kalean da amaiera, 13:30 inguruan.

Goi mailako taldeak etorriko dira. "Parte hartze oso ona espero dugu. Jendeari errepide bazterrera irtetzeko deia egiten diogu. Goi mailako txirrindularitzaz gozatzeko aukera paregabea egongo da", adierazi zuen



Tropela tiraka, Women Itzuliko iazko aldian. WOMEN ITZULIA



Isabella Holmgren kanadarrak irabazi zuen Durangoko Klasikoa iaz.

SASKIBALOA

Finala irabazita, Tabirako Baqueko bigarren taldea mailaz igo da

J.D. DURANGO

Tabirako Baqueko emakumeen bigarren taldeak mailaz igotzea lortu zuen joan zen asteburuan, Portugaleten jokaturiko Lauko Finala irabazita. Horrela, Durangoko saskibaloia bueltatuko da, iaz maila galdu eta gero.

Xabi Ortuoste eta Julen Berrocal entrenatzaileek zuzenduriko taldeak denboraldi bikaina osatu du, guztira 23 garaipen eta hiru porrot pilotuta. Lauko Finalean ere maila handia erakutsi zuen: finalerdietan Mungiarri irabazi zion, lehia estuan (68-60), eta finalean Portugaleteko Oribeltza menderatu zuen, 53-39ko emaitzagaz.

Bestalde, asteburu honetan emakumeen lehenengo taldearen txanda izango da; Iruñean Lehen Nazionalako Lauko Finala jokatuko du.



Jokalariak igoera ospatzen. JOSEBA ARANA

Abadiñon egindako aurkezpenean Alaitz Biritxinaga Itzulia Women lasterketako zuzendariak.

Durangoko Klasikoa

Itzulia Women domekan amaituko da, Donostian, baina talde askok luzatu egingo dute Euskal Herriko egonaldia. Izan ere, Durango-Durango Emakumeen Laboral Kutxa Saria klasikoak munduko txirrindularirik onenariakoak batuko ditu aurten ere datorren asteko martitzenean.

Lasterketa 15:00etan hasiko da, Ezkurdin. Aurtengo aldian 23 taldek parte hartuko dute eta eurretari batzuk World Tour mailakoak dira. Emakumeen mundu mailako UCI egutegiaren barruko lasterketa da.

Klasikoak 113 kilometroko ibilbidea du. Lehenengo zatian Berriz-Elorrio-Atxondo-Abadiño zirkuitua egingo dute. Guztira, lau bider igaroko dira Miota gainetik. Azkeneko 30 kilometroak ikusgarriak izango dira. Lehenengo, Zaldibarretik Aretio igo eta Berrizera jaitsiko dira. Ondoren, Abadiñotik Gairaira eta Goiuriara igoko dira. Eta, erremate modura, ziklistek Iurretatik San Juan Momoitiko aldats gogorre aurre egingo diete. Lasterketako unerik ikusgarrienak igoera horretan izaten dira beti, %17ra arteko aldatsak daudelako eta handik zuzenean helmugarantz doazelako.

Proban Durangaldeko ziklista bat izango dugu: Mirat Team taldeko Laida Alzola iurretarra.

JOKALDIA



ANTXOKA GERRIKABEITIA URIARTE
LARRASOLOETA XAKE TALDEA

Gaztetasuna garaile

Joan zen astean Faustino Oro 12 urteko argentinarrak Maisu Gorenaren titulua lortu zuen. Gertu izan du 2021ean Abhimanyu Mishra estatubatuarrak lortu zuen marka hobetzea, hau da, titulu hori lortzen duen xakelaririk gazteena izatea.

Bide beretik, pronostikoez ziotena apurtuz, joan zen hilean Sindarov gazteak irabazi zuen Hautagaien Torneo. Eta, honela, udazkenean munduko titulua irabazteko lehiatuko da buruz buru 20 urteko Gukesh munduko txapeldunaren aurka.

35 urte dituen Magnus Carlsenek, jokalaririk onena izaten jarraitzen duenak, 2024an uko egin zion erritmo klasikoko munduko txapelketako titulua defendatzeari. Horrek bi belaunaldiren arteko lehia sortu zuen. Alde batetik, jokalaria beteranoak daude, 30 urtetik gorakoak: Caruana, Nakamura, Nepomniachtchi eta

Anish Giri. Beraientzat munduko txapeldun izateko azken aukera izan zitekeen, eta aprobetxatu egin behar. Beste aldetik, haiekin lehian, 20 bat urte dituzten eta

"Noiz menderatuko dute Carlsen belaunaldi berri honetako xakelariek? Gai izango ote da inor xakean nagusitasunez gailentzeko?"

elite mailara iritsi diren xakelariak daude: Abdusatorov, Erigaisi, Keymer, Praggnanandhaa eta Arjun.

2024an, Gukesh inoiz izan den munduko txapeldunik gazteena bihurtu zen. Bere hurrengo lehia bere adin bereko Sindarov menderatzea izango da. Horrekin batera, sortu berri den eztabaida argituko den ala ez zain geratuko gara. Noiz menderatuko dute Magnus Carlsen generazio berri honetako jokalariek? Eta, gai izango ote da jokalaria horietako inor xake munduan nagusitasunez gailentzeko?

Xakearen historian, aldi batzuetan argi nagusitu diren jokalariek izan dira, eta badirudi horrek jendearen artean zaletasuna areagotzen laguntzen duela. Beste garai batzuetan, aldiz, "parekoen artean hobere-na" deitu dioten munduko txapeldunak ere izan dira. Eta horrek ere bere onurak ekarri ditu.

Zenbat ezagutze ar duzu **Abadiño?**LEHIAKETA DAGOENeko **MARTXAN DA!**
Maiatzaren 21era arte

PARTE HARTU ORAIN!

Irabazi bazkari bat
Abarketeruena jatetxean 🍷SARTU,
JOKATU
ETA IRABAZI
OTORDU BAT!

GUARDIAKO BOTIKAK

MAIATZAK 15, BARIKUA

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

MAIATZAK 16, ZAPATUA

09:00-09:00

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

MAIATZAK 17, DOMEKA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

09:00-13:30

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

22:00-09:00

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

MAIATZAK 18, ASTELEHENA

09:00-09:00

Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

MAIATZAK 19, MARTITZENA

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

MAIATZAK 20, EGUAZTENA

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

MAIATZAK 21, EGUENA

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak daude zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaituzte Anbotoren ordezkariatzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

GOZATU
GOZOTEGIAErmodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

☎ 661 401 400

f Gozatu Gozotegia

📍 gozaturgozotegia

Zorionak Felisa (1062.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu.
Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan.

LIBURU-AURKEZPENA

SORBATZA

Markel Sanchez eta Mireia Delgado

Ekainak 5, barikua.
19:00etan

hitz

artekalesi 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.comKULTUR
ANIZTASUNAREN
ASTEA IURRETANMAIATZAK 16
ARROZEN EGUNAEGITARAUUA
IKUSI

INMOBILIARIAK

 <p>F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO www.inmoetxetxo.com</p>	 <p>Sanagustinalde, 4 - 1.ºz. - 48200 DURANGO</p>	 <p>Askatasun etorb. 10 - DURANGO - 946 816 666 www.inmoduranguesado.com inmoduranguesado@gmail.com</p>	 <p>Barrenkalea, 15 beheko - DURANGO Tel.: 946 816 423 - www.fernandouri.be.es</p>
<p>ERAIKUNTZA BERRIA AZOKA BERRI 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. 376.000 € -tik aurrera.</p> <p>ARANDONOTORRE Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trasteleku. C.E.E=B.</p> <p>AUKERA IURRETA 3 logela, komunak, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. C.E.E=F 140.000 €</p> <p>ERRENTXU 62m2-ko lokala. Egokitua. Salgai. 45.000 €.</p> <p>GARAI Familia bakarreko etxea eraikitzeko lursaila. 240.000 €</p> <p>SAN INAZIO Garajea. 11.000 €.</p> <p>ALLUITZ Lokala. 70 m2. Egokitua. Erakuslehoia 2 kaletara. 110.000 €.</p> <p>ABADIÑO Gaztelua. Lursaila. 866 m2. Salgai. 29.000 €.</p> <p>ETXEBIZITZAK SALGAI SAN INAZIO 104m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara eta garajea. CEE=E. 330.000 €</p> <p>MADALENOSTE 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. garajea eta trasteleku. CEE=E 320.000 €</p> <p>KOMENTUKALE 125m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukalde-garbitegia. Terraza. C. EE.=G. 298.000 €</p> <p>EZKURDI 101m2. 3 logela eta sukalde-egongela. Ganbara. C.E.E= F. 325.000 €</p> <p>MAÑARIA: 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ikuspegiak. C.E.E=E 250.000 €.</p> <p>BASERRIA, ZORNOTZA Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. 470.000 €. C.E.E=F</p> <p>MUNTSARATZ Baserría. 670 m2. Familiabakarrekoa. 500 m2-ko lursailarekin. C.E.E=F 525.000 €.</p> <p>LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI ABADIÑO 136m2. Pabilioia. egokitua. 105.000 €</p> <p>MURUETA TORRE 44 m2. Kearentzako irteera. 50.000 €</p> <p>ASKATASUN ETORBIDEA 60m2. Lokal egokitua.. 125.000 €</p> <p>MATIENA Trañabarren. 60m2. Salgai. etxebizitza egiteko aukera. 75.000 €</p> <p>IZURTZA / PABILIOIA 261m2. Egokitua. 195.000 €</p> <p>DURANGO 100m2. Lokala. Alde zaharrear. Egokitua. 115.000 €</p> <p>MASPE 150m2. Lokala. 90.000 €</p> <p>KOMENTUKALE 100m2. Lokala. Egokitua. 160.000 €</p> <p>IURRETA (Bixente Kapanaga). 117m2. Lokala. 75.000 €</p> <p>ASTEPE 40m2. Lokala. egokitua. 70.000 €</p> <p>URKIOLA 120 m2. Egokitua. Alokairuan. 650 €</p> <p>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 80 m2. Egokitua. Alokairuan. 1.600 €</p> <p>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 180 m2. Egokitua. Erakuslehoia. Alokairuan. 2.900 €.</p> <p>DURANGO Bulegoa. Erdialdean. 1.º go solairua. 650 €.</p> <p>JUAN MARI ALTUNA 100 m2. Egokitua. Kea ateratzeko bidea. Alokairuan.</p> <p>GARAJEAK SALGAI ALLUITZ Garajea. Salgai, 17.000 € / Alokairuan 65 €</p>	<p>ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO ZUMALAKARREGI 235 m2. Durango erdigunean. Zoragarria.</p> <p>MONTEBIDEO Berriztatuko. 175m2, 6. solairuan. Balkoia. 60 m2, 7. solairuan. Ikuspegi ederrak.</p> <p>MONTEBIDEO 150 m2. 4 logela. Handia. 2 kotxerentzako garaje itxia.</p> <p>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 180 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. 3 balkoi. Berriztatuko.</p> <p>FRANTZISKO IBARRA 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukaldea. 100 m2-ko terraza handia.</p> <p>GOIENKALEA 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia.</p> <p>KURUTZIAGA 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatuko.</p> <p>BARRENKALEA Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trasteleku.</p> <p>IURRETA DANTZARI 3 logela. Argitsua. 145.000 €.</p> <p>LURSAILAK SALGAI URRUTXUA 9 hektareako 2 baso salgai. Errepedearen ondoan.</p> <p>BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI IURRETA Fauste auzoa. Bifamiliarra. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua. Prezio ezin hobea.</p> <p>IURRETA Baserrí erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatuko.</p> <p>ABADIÑO Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.</p> <p>BERRIZ Andikona auzoa. Baserrí ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.</p> <p>MAÑARIA 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.</p> <p>BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO 30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne.</p> <p>DURANGO ERMODO KALEAN 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearrekin.</p> <p>LOKALAK ALOKAIUAN ALDE ZAHARREAN, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.</p> <p>LOKAL INDUSTRIALA SALGAI MATIENA 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.</p> <p>ELORRIO 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.</p> <p>LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI BERRIZ BERRIZ Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepede ondoan. Leku onean kokatua.</p>	 <p>C. E. E.: E. 148.000€</p> <p>DURANGO SAN FAUSTO 47,66m2. Egongela-sukaldea (jantzia), jangela, 2 logela eta komuna duxarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Aparkatzeko erraztasuna. Gaur egun alokairuan dago. ITE-a pasatutakoa.</p>  <p>C. E. E.: Bidean. 140.000€</p> <p>IURRETA BIXENTE KAPANAGA 83 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. ITE-a pasatutakoa.</p>  <p>C.E.E.=E 164.000€</p> <p>ABADIÑO SAN TROKAZ 33,65 m2. Egongela-sukaldea-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna duxarekin. 122,20 m2-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta aparkatzeko erraztasuna.</p>  <p>C. E. E.: G. 187.000€</p> <p>BERRIZ AGIRRE LEHENDAKARIAEN PASEALEKUA 85m2. Halla, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua duxarekin. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatuta den igogailua du.</p>  <p>16.000 € + BEZ</p> <p>MATIENA TRAÑARROTA Garajeak. Lehen eta bigarren solairuan dauden garajeak. Duela gutxi eraikitako eraikina. Salgai.</p>	<p>DURANGO ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 € / E.E.Z=E igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero 270.000 €.</p> <p>ANTSO EZTEGIZ: 3 logela, sukaldea eta egongela. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F</p> <p>BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F</p> <p>GOIENKALE KALEA: Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F</p> <p>SAN INAZIO AUZUNEA: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 € / E.E.Z=A</p> <p>ZABALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua eta 2 kotxerentzako garajea. 375.000 € / E.E.Z=E</p> <p>ABADIÑO DENDARIKOA: Zaharbertzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €.</p> <p>ATXONDO ARTEKALEA, 13: Konpontzeko baserría lursailarekin. 300.000 €.</p> <p>BERRIZ Bidegain kalea: Duplexa. 3 logela, sukaldea, 2 egongela eta 3 komun. Terraza. Igogailua. 2 garaje eta trasteleku. 450.000 € / E.E.Z=Bidean</p> <p>MURGOITIO AUZOA: Berreraikitako baserría lurzoruagaz. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €</p> <p>EITUA: Berreraikitako baserría lursailarekin. LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €</p> <p>GARAI MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitako lursailak. Aukera ezberdinak.</p> <p>IURRETA ZUBIAURRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. 198.000 € / E.E.Z=F</p> <p>GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI ANTSO EZTEGIZ: Garajea. 45 € / hilean. Motorrentzat egokia.</p> <p>MADALENOSTE: Garajea. 70 € / hilean.</p> <p>KURUTZIAGA: garajea. 18.000 €.</p> <p>KURUTZIAGA: Garaje itxia 22.000 €.</p> <p>MADALENOSTE: Garaje itxia eta trasteleku. 42.000 €.</p> <p>LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI ANDRA MARI KALEA: 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E.Z=E</p> <p>BARANDIARAN KALEA: 50 m2-ko lokala. 800 € hilean / E.E.Z=Bidean.</p> <p>IBAIZABAL AUZUNEA: 60 m2-ko lokala. 240.000 € / E.E.Z=E</p> <p>KOMENTU KALEA: 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. 55.000 € / E.E.Z=F</p> <p>SAN MARTINPE ATARIA: 12 m2-ko lokala. 25.000 € / E.E.Z=F</p> <p>ZABALE KALEA: 50 m2-ko lokala. 60.000 € / E.E.Z=F</p>

Gure Eiffel dorrea



KAROLINA SUAREZ
BORGES

Bada Parisik Eiffel dorrerik gabe? Eraikitze kontratuak urte batzuen buruan dorrea eraisteko agindua zekarren. Batzuentzat burdinazko traste erraldoiak hiria itsusten zuen, baina monumentua kendu behar zenerako paristarrek bere egina zuten. Trasteari erabilera eman ez salbatu zuten erasketatik; antenak jarrita.

Ingeniaritzaren, tamainaren eta aurrekontuaren distantziak onartuta, Durangon ere badugu gure erresistentzia-monumentu propioa: zurezko Mikeldi erraldoia. Hilabete bateko bizitza eman zioten, baina bertan jarraitzen du 2023tik. Orain gutxi berriro kentzen saiatu da udala, baina auzotarrek monumentua ez desegitea lortu dute. Ez da Madalenoste plazan geratuko: institutura eramango dute. Behintzat mantenduko da, nahiz eta askoren egunerokoaren parte izateari utziko dion.

Administrazioak hiztegi hotz bat dauka horrelakoetarako: segurtasuna, mantenua, iraungipena. Herriak, ordea, beste modu batera hitz egiten du. Mikeldi ez da zurezko eskultura soil bat; komunitate batek bere egin duen zerbait baizik. Administrazioaren logika hotzaren eta herri-afektuaren arteko talka.

Herrietan identitatea planifikatu gabe eraikitzen da maiz. Galdetu, bestela, Zornotzako Patatari. Monumentu handiak jendeak aukeratzen ditu batzuetan, ia konturatu gabe.

"Pazientzia apur bat behar da baserriaren teiltuari bere itxura emateko"

ANDER MAORTUA ARTEAGA NAGUSIEN ELKARTEKO IDAZKARIA

Aitziber Basauri ZALDIBAR

Ander Maortua (Zaldibar, 1942) Zaldibarko hainbat baserriren maketak ditu etxean, kartoizko kaxak berrerabilita egindakoak; tartean, Zaldibar Dorrearena. Zaldibarko historia eta ondareari buruzko Balendin Lasuenen liburuxkak baliatuta sortu ditu maketak. *Kartonajea*, berak dioen moduan, pinturagaz partekatzen duen zaletasuna da. Bai maketak sortzeko bai margotzeko, gurago du musikaren laguntasuna.

Zelan hasi zinen Zaldibarko baserrien maketak egiten?

Nagusien Elkarteko batzordean sartzeko proposamena onartu eta gero, jubilatuentzat oinarriko marrazketa ikastaroa antolatzea bururatu zitzaizkidan. Udazken hasieran izan zen hori. Zazpi lagunek eman zuten izena eta ikastaroak Gabonak arte iraun zuen. Gero, baserrien maketak egiteko ikastaroa egitea proposatu nuen. Hiru-lau baserri egin nituen. Oso politik iruditu arren, ez zuten interes handirik piztu.

Non ikasi zenuen maketak egiten?

Eskolan, 7-8 urtegeaz. Ermutik etortzen zen maisu batek marrazketa lineala erakusten zigun, eguenetan. Baina Gabonak helitzen zirenean, jaiotzak egiten genituen (baserriak, lorategiak, errekek, zubiak...).

Enkarguren bat ere jaso izan duzu.

Nagusien Elkarteko presidentearen bitartez, Abadiñoko baserri batek 100 urte egingo zi-



Ander Maortua, Zaldibarko hainbat baserriren kartoizko maketak aurrean dituela.

tuela eta, baserriaren maketa egitea eskatu zidaten. Errege bezperan oparitzeko enkargua zen. Erretratuak ikusita egin nuen, eta, neurriak jakiteko, Google Earth-en begiratu nuen. Rafa Urizarri ere egin nion familiako baserriaren maketa.

Zaldibarko hamabi bat baserriren maketak dituzu. Zer da gatxena?

Ez da batere gatxa. Pentsa, 7 urtegeaz egiten genituen! Lehengo, baserria eskalan marraztu eta margotu egiten dut. Amaitzean, oinarrian itsasten dut. Umetan leihoak ere ateratzen



PEFC ziurtagiria
Produktu hau
kontrolatutako
iturrietako materialez
egina dago, birziklatua
da eta Baso Kudeaketa
Iraultzailearen
ziurtagiria dauka
www.pefc.es

genizkien, eta, barruan argia zegoela irudikatze, gozokien paperak erabiltzen genituen. Igual horretzek egitea zen gatxena. Orain egindako baserrien leihoak margotuta daude.

Pazientzia beharko da.

Denbora hartu behar da, eta bai, pazientzia apur bat behar da baserriaren teiltuari bere itxura emateko. Baserri bakoitza egiteko, zortzi bat ordu behar izan ditut.

Balendin Lasuenen liburuxketan begiratu eman diezu itxura.

Bai, eta konturatu nintzen liburuxkak kaleratu zituenetik hona baserri guztiak berriztatu direla. Jatorrizkoak irudikatu ditut. **Gaztetan Venezuelara joan behar izan zenuen.**

Bai, 19 urtegeaz. Aitak istripu larria izan zuen eta hara joan behar izan nuen. Hego Amerikako papergintza produktorik handienetarikoa zuen fabrika batean lan egin nuen. 27 nazionalitateko lagunak zeuden han.

Margogintza ere gustatzen zaizu.

Bai, beti gustatu zait, eta jubilatuta eta gero, denbora izan nuen, margotzen hasi nintzen. Bilbora joaten nintzen olio-pintura ikastaroa egitera. Bilboko Arte Ederren museoko bazkide ere izan nintzen hainbat urtean. Sasoi batean, 15 egunean behin joaten nintzen. Behin, Beketxe-ko koadro txiki bat ikusi nuen, *Reuerdo de Zaldua*. Emozionatu egin nintzen. Beketxekoa naiz ni. Gure amama bizi zenean baserri-etxea zen. Nik ez nuen ezagutu, baina aita, osaba... han bizi izan ziren. Barroeta-Angi-solearen margoa zen. Erretratuak egiten zituen, eta, seguruenik, Zaldibarko Bainuetxera etortitako egun batean egingo zuen. **Inoiz pentsau duzu maketak era-kustea?**

Ez. Etxean gordeta ditut.

Motzean

Eraikin bat?

Gipuzkoar Konpainiarena, Puerto Cabellokoa.

Pintore bat?

Sasoi batean, Rouault. Orain, Jackson Pollock.

Zaldibarko txoko bat?

Beketxe.

Maketa amaitzean...

Umezarora bueltatzen naiz.

Abesti bat?

Il dolce suono (Nadine Sierra)



Eraikin berria bizi-kalitate berarekin Durangon.

2 eta 3 logelako 47 etxebizitza berri, San Roke Barria II. Sukaldea guztiz hornitua eta armairuak gela bakoitzean.



GARAJEA



TRASTELEKUA



GIMNASIOA



RELAX GUNEA

946 46 20 41 sukia.com

SALMENTA BULEGOA: Astxiki kalea, 1. Durango



Zure etxean zaude. Estás en tu casa